

uk

166. zenbakia / 2009ko azaroaren 23a



kerobia

AREETA (GETXO) ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLA
Azaroaren 28an, zapatua, 22:00etan. Sarrera: 8€

GetxO negin

GetxO negin

I. Pintxo Lehiaketa

GetxO negin

Abenduak 19 larunbata eta 20 igandea


Beste
marika marika nam-nam
pintxo glup-glup!
d'zanga d'zanga bat
mesedez

euskarak
asetzen
gaitu



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Armetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Nerea Gujarrubia, Maitane Nerekan, Zuberioa Iturburu
FOTOGRAFIA: Asier Menthaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bitor Egurola, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

TRATU TXARREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Altxor bilatzailea.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Erandio bista orokorra.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Jone Uria.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Izarren Distira kastinga.
- 28. ARGAZKIA. Plentziako plaza.
- 30. BERBETAN. Maria Silvestre.
- 34. FOTOGRAFIA. GETXOPHOTO, Liyu+Liubo.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Zinebi Uribe Kostan.
- 43. MUSIKA. Udagoieneko ostera. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Ahotsenea ekimena. Erreseinak.
- 45. KIROLAK. Artea Bowling kluba.
- 46. ELKARRIZKETA. Euskal Oloa aldizkaria.

AMAITZEKO

- 49. NORA JOAN. Bar Villamonte, Algorta.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. San Lorenzo dantza taldea, 1944.
- 54. AITORMENAK. Jon Allende.

Azala: Liyu+Liubo



30 Maria Silvestre

Berbetan

Erakundearen egitekoak eta andrazkoen egoera argitzeko zabaldu dizki-gu ateak Emakundeko zuzendariak



11 Jone Uria



54 Jon Allende.

www.renaultleioa.com

Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

Bisita egizu gure web berria eta hartu **txanda on-line**

www.renaultleioa.com

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Artisaua

Zer da artisautza? Lana ondo egitearen artea da, hitz gutxitan. Se-nett soziologoak bere azken liburuan hausnarketa sakona eskaintzen dio: errepaso historiko batean, Stradivarius biolingile famatuaren lantegiraino garamatza. Maisu honen “sekretuek” ez dute biziraun eta ikerketa asko egin diren arren, bere biolinak imita ezinak dira. Trebetasunak belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira, baina bada jakinduriaren alderdi bat, agerikoa ez dena, ikusten ez dena. Era inkontzientean egiten diren keinu eta mugimenduak. “Jakinduria inplizitu” hau gizartearen zati da, baina ezin da gizartetik banatu. Aurrez aurreko hartu-emanaren beharra du bizirauteko. Ikasketa prozesu indibidualari erabat kontrajarria dago. Gizarte ohiturak aldatuz doazen heinean, jakinduria kolektibo hauek erraztasun handiagoz galtzen dira. Nork bere etxera begiratz gero, hortxe dauzkagu aitite-amamak. Hainbat ofizio eta egitekotan maisu dira, bene-benetako artisauak. Lagun batek, 85 urteko gizon bati eskatu zion perretxikoak batzen irakats ziezaiola.“Gazte, ez al zara zu unibertsitatean ibilitakoa? Han ez al dizuete halakorik irakasten?” Horrela erantzun zion inoiz eskolara joan bako aititek. Erantzun inuzente, baina benetan biribila.

gu geu

Luntxa egongo da

Edozein izaerako ekimena antolatzen denean, jendearen erantzuna izaten da beldur handiena sortzen duen faktorea. Dena ondo antolatu, behar den materiala lortu, ekitaldiaren mamia ahalik eta gehien landu, zabalpena egin... Horrek guztiak ez du ezertarako balio baldin eta “egun handia” heldu eta prestatutakoa ez bada jendearengana heltzen. Hori gerta ez dadin, Lekeition zein Ottawan “artxiezaguna” den “luntxa egongo da” esaldia erabiltzen da askotan, amu gozoa.

UK-ko lagunok “Erretratuak” erakusketa eta “Getxo akordaten naz” dokumentalaren proiektzioa (azpтитuluakaz) antolatu dugu azaroaren 25erako, XI. Euskal Kulturaren Jardunaldi-en barruan. Arrastiko 19:30ean batuko gara Algortako Karitate kaleko 1. zenbakian dagoen Alday Patronatuko hallean. Eta bai, luntxa egongo da. Ondo etorria izango zara luntxeko ardo bila zatozena, zein erakusketako argazkien edertasuna ikusten hurreratzen zarena. Arrazioia bata edo bestea izan, gugaz egongo zarela da guretzat garrantzitsuena; labetik atera barri egongo diren UK-ren azken produktuak dastatuko dituzula, tortilla pintxo gozoak dastatzen diren bezala.

25ean elkar ikusiko dugulakoan, agur beroa!

UK-ko lantaldea

Iritzia

Azaroaren 11n Martxelo Otamendik hitzaldia eman zuen Algortan Bizarra Lepoanek gonbidatuta. Hona hemen, bertan esandakoaren kronikatxoa.

Euskalduna eta librea!

Euskalduna eta librea zelako kendu ziguten Egunkaria. Horrela ulertu nuen Martxelo Otamendiren hitzak entzunda: Egunkaria Euskal Herriko hizkuntzan idazten zen, Euskal Herriko euskaldunentzat, eta Euskal Herria ardatz hartuta,

«Guk geuk sortu behar dugu, elkarlanean, auzolanean, lortu nahi dugun hori»

historia luzearen tarte honetan, konplexuz eta beldurrez beteriko nazio-estatu harroak egokitu zaizkigu ondoan, eta denok dakigu konplexuek, beldurrek eta harrokeriak zer dakarten: ulertzen, ezagutzen eta kontrolatzen ez duten guztiaren kontra amorruz eta gorrotoz egitea, epaileak, poliziak eta politikariak erabilia.

Horregatik jo zuten kolpea. Beste kolpe bat, beste behin ere. Euskaldunak eta libreak izan ez gintezen, ezer eraiki ez

genezan. Eta kolpea jotzeko, hamaika aldiz egin izan duten bezala, gezurrak: euskararen onerako egin zuten, gure hobe beharrez egin zuten, gu terroristengandik salbatzeko. Eskerrik asko. Horrela idatzi zuten euskararen eta herri honen liburu beltzaren beste orrialde bat.

Itxierak gauza asko erakutsi zizkigun: etsaiaren hortzak zein zorrotzak diren eta zenbat oinaze eragin dezaketen, batetik; etxeko batzuen miseria epelak, bestetik; eta jende askoren kemena, grina, elkartasuna eta aurrera egiteko sena, azkenik. Ehunka langile kalean, enpresa bat itxita, komunikabide bat isildua, hainbat familiaren sufrimendua, kazetari batzuk atxilotuak, inkomunikatuak eta torturatuak, entzun behar izan genituen adierazpen lotsagarriak eta mingarriak... eta horren guztiaren gainetik, berriro ere miraria: Donostiako inoizko manifestaziorik handiena, egunkari berria kalean, jendearen beroa eta maitasuna.

Martxelo Otamendiren itzalaren atzean hiru kontzeptu argi ikusi nituen: lana, elkartasuna eta umorea. Lana sarea ehuntzeko eta sendotzeko, elkartasuna bakarrik eta hotz ez ibiltzeko, eta umorea behin eta berriro altxatu ahal izateko. Uste dut hiru horiek erabilia aurrera egingo dugula, oztopoz oztopo, aitaren etxean amaren sua piztu arte. Inork ez digu ezer oparituko, hori argi dago. Erakundeak gaur urdin, bihar berde, eta etzi beltz. Zapaltzaileak botak jantzita daude eta eurenganatu nahi gaituzten aprobetxategi dirugoseekin ezin ezer egin. Guk geuk sortu behar dugu, elkarlanean, auzolanean, lortu nahi dugun hori. Euskarazko egunkaria nahi badugu, guk geuk egin beharko dugu egunero: erosiz, idatziz, kontsumituz, kritikatzu eta zabalduz, horixe baita modu bakarra euskaldunak eta libreak izateko.

Lander Solozabal
(Bizarra Lepoan,
Getxoko Euskara Elkartea)



2009KO URRIA. AREETAKO HONDARTZA

Areetako altxorraren bila/ Esperantzaz galtzen den azkena da, edo hori esaten du esaldi ezagunak behintzat. Argazkiko gizonak Areetako hondartzan jarriak zituen esperantzak urriko goiz hodeitsu hartan. Auskalo zer gura zuen aurkitu! Agian, ezer ez; gehienetan, ezer bilatzen ez duena da gehien

aurkitzen duena. Prentsak dionenez, Ingalaterran munduko altxorrik handiena aurkitu berri du gizon batek horrelako aparatu bategaz. Ordutik, altxor bilatzaile guztiek espero dute horrelako beste bat aurkitzea. Sentitzen dut, baina buruan izanez gero ez duzue lortuko. o / Argazkia: Asier Mentxaka

Uribe Kostako 12-18 urte bitarteko gazteak behar ditugu!

Saria:
Ikas bidaiarako laguntza ala asteburu pasa zure lagunekin

Izena emateko azken eguna: azaroak 27

Casting-ak: Gorliz abenduak 1, Urduliz abenduak 2, Sopelana abenduak 3

Gala:
Abenduak 18, 19:00etan.
Kurtzio Kultur Etxean (Sopelana)
Sarrera dohainik

Informazio gehiago:
www.izarrendistira.nireblog.com

Tuentin era zure zain!



Azaroaren 20tik abenduaren 3ra
EUSKAL KULTURAREN XI. JARDUNALDIAK

Del 20 de noviembre al 3 de diciembre
XI JORNADAS DE LA CULTURA VASCA

euskara, guztion ahotan
en boca de todos

Abenduaren 20a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa	Abenduaren 21a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa	Abenduaren 22a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa	Abenduaren 23a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa	Abenduaren 24a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa	Abenduaren 25a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa	Abenduaren 26a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa	Abenduaren 27a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa	Abenduaren 28a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa	Abenduaren 29a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa	Abenduaren 30a 19:00etan Eusko Ikasketa Zentroa Eusko Ikasketa Zentroa
--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Iraganez doa denbora* beti / ERANDIOKO BISTA OROKORRA

*** Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Lan beharra



2009ko urria, Algorta

Testua: **Maialen Markaida**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Krisia hasi zenetik urte bat astiro da igaro geroz (e)ta gehiago dira goizero kola luzeen esklabo, INEMa oso aspaldidanik jendez beteta baitago; ez begiratu larritasunez langile hori arraro lana arriskuan dagoelako gizona baino gehiago.

2

Argazki honi begiratuta hau esaten dit barrenak: ikusten denez andamiokoak ditu segurtasunak denak, nahiz (e)ta agian hilabetea bukatzeko pasa penak, badaude asko soldata triseen truke jo (e)ta ke daudenak; euren bizitza lan ziztrin baten jokatu behar dutenak.

3

Kotxeen letrak, ura, argia, gasa eta hipoteka burua dugu azkenaldian soilik zenbakiz beteta; argazki honi begiratuta egina dut gogoeta erantzuleek poltsikotan gain gudan jartzea arreta martxa honetan berdin pentsatzen amaituko dugu eta.

* Doinua: Euskaldunaren istorio zaharrak

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidali zueguen argazkiak eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

portu zaharra sarean > www.puertoviejodealgorta.blogspot.com



Portu Zaharra interneten ere present

Herriko txoko zaharrenetakoa den arren, ez du mundu zibernetikotik at geratu gura izan eta berak ere bere lekua topatu du interneten. Algortako Portu Zaharrak berariazko gunea du sarean, bertan, auzokide, ekimen, taberna, eta txoko kuttunenak agertzen dira. Auzoan jasotako gertakari garrantzitsuenen barri ematen dute, hala ere, kasu askotan bertako bizilagunak dira sarreraren protagonista nagusienak. Hauen kezkek eta kekek ere lekua dute, esaterako, metal koloreko baranda barrien aurkako iritzia agertzen dute, horiek ez omen dute Portu Zaharren antzinako itxura zaintzen. Barandaz gain, blogariek gogor egin dute Portu Zaharrean eraiki gura duten txaiten proiektuen aurka. Horrela, istorioz istorio Algortako antzinako auzoaren izaera aldarrikatzeko bidea aurkitu dute. Azken batean, oraingoan ere internetek aukera eman die Portu Zaharra lau haizetara zabaltzen. ○

bertsolarari txapelketa > Finaletik gero eta hurrago



Abenduaren 15ean Hendaian ospatutako Finalaurreko saioa

Bertso Finalaurrekoak igaro dira eta Uribe Kostatik ordezkapen indartsu eta zabala egon dela, besterik esatea ez zaigu geratzen. Saioz saio, Bergara, Gasteiz, Tolosa eta Hendaia geltokiek sarrera eman diete 17 bertsolariri aurrera jotzeko. Ez da erraza horien artean sailkatzea, maila altua erakutsi baitu lehiaketa osoan zehar. Aipatzekoa da, bertsolaria gazteenak oholatza gainean emandako kolpea eta horren adierazpide da Miren Amurizaren garaipena Gasteizen, Berrizkoak aurrea hartu eta bigarren itzulirako zuzenean sailkatu zen. Uribe Kostako ordezkari ere, ez zen txarto ibili, hala ere, Fredi atzean lotu zen Bergaran eta Xabik ezin izan zuen aurrera egin Gasteizen. Uria oster, bigarren itzulirako sailkatu zen Hendaian, Maia eta Amets Arzallusen eskutik. ○

saiazgetaria
HOTELA



Roke Devia 25
20808 Getaria
Gipuzkoa


...harria


...lehengo garaiak...


...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

azaroak 25 > indarkeria matxistaren aurka Uribe Kostan



Eragile ezberdinek mobilizatzerara deitu dute azaroaren 25ean

Azaroaren 25ean more bihurtuko dira Uribe Kostako kaleak. Asko izango baitira instituzioek eta hainbat eragilek egun honetarako antolatu dituzten mobilizazio eta ekimenak. Urte honetan zehar 6 izan dira Euskal Herrian indarkeria matxistaren ondorioz hildako emakumeak. Izandako hilketa eta erasoei erantzuteko, Mankomunitateak, Plentzia, Urduliz, Sopela eta Berangoko udalek “Beldur Barik” izeneko kanpaina abiatu dute. Horrela, puntu lilak hainbat gunetan kokatuko dituzte herritarren indarkeriaren aurkako jarrera agerian utziz. Barrikan aldiz, emakumeek euren trebezia erakutsiko dute, erakusketaa eginez. Uribe Kostako gainontzeko herrietan, Udalek zein lekuan lekuko emakume elkarteek, mobilizazio eta ekimenak antolatu dituzte egun horretarako. Getxon esaterako, Areetan Gizatiar emakume taldea mobilizatuko da 19:30etan eta Algortan aldiz, Bilgune Feministak manifestaziora deitu du 20:00etan. ○

Itxas Argia> Belgikatik biran



Itxas Argia dantza taldea Liejan (Belgika) eskainitako dantzaldian

Ez da lehen aldia Getxoko Itxas Argia dantza taldeak atzerrira bidaiatzen duena. Izan ere, urteetan zehar, euskal dantzak txoko ezberdinetara eroan ditu Getxoko taldeak. Euskal Herrian ez ezik, atzerrira ere hainbat bidaia egin dute Itxas Argiako dantzariak: Ingalaterra, Aosta, Frantzia, Galizia, Herbehereak, Britainia, Portugal, Katalunia, Grezia zein Montevideo aipa ditzakegu. Aurten aldiz, Liejan (Belgika) izan dira erakustaldia egiten. Urriaren 31tik azaroaren 1era egin zuten joan-etorria, “La Compagnie Folklorique Fanny Thibout” belgiar taldeak gonbidatuta. Orain urte bi egindako bisita itzuli diete getxoztarrek. Urtero antolatzen duten Herrien Jaialdira atzerriko talde bat gonbidatzen dute, herri desberdinetako folklorea gurean ezagutarazteko asmoz. ○



“ALBEEn giro oso polita daukagu; bertso-eguna, udalekuak... horrelako ekitaldiek animatzen gaituzte aurrera jarraitzen”

Jone Uria > Algortako Bertso Eskolako bertsolaria

Azken boladan, Bertso Txapelketa Nagusian erakutsitako mailagatik ikusi dugu Jone Uria egunkarietan. Baina, Getxon, aspaldi ezagutzen genuen. San Nikolas Ikastolan zegoela hasi zen bertsotan: *“Aitortu behar dut txikitan ez zitzaidala lar gustatzen. Gurasoak zaleak dira eta eurekaz bertsoak entzuten gustua hartu nion”*. 12 urtegaz ezagutu zuen Algortako Bertso Eskolak animatu zuen aurrera jarraitzen: *“Giro polita daukagu; bertso-eguna, udalekuak... horrelako ekitaldiek laguntzen dute”*. Bihotzean daroa ALBE: *“Txapelketetan asko animatzen diogu elkarri; aurten niri egokitu zait kantatzea, baina aurreko urteetan paiatarren atzetik ibili gara”*. Umea zelarik, bertso idatzien txapelketa irabazi zuen: *“Errekonozimendu batek beti animatzen du aurrera egiten”*. Galdera bi egin dizkiogu eta biak zuzen eta lasai erantzun dizkigu, bere estiloan. Alde batetik, Uribe Kostako bertsolaritzaren indarrak egin digu berba: *“Frediren generazioko bertsolariek tabernan ikasi dute; eurek eskolan talde indartsua sortzea lortu zuten. Orain guri dagokigu datozen belaunaldiak hezte”*. Bertsolarien dohainei buruz ere jardun dugu: *“Bere buruan sinetsi eta kritikak jasotzen jakin behar du; baita erantzuteko eta ez dakigunari buruz berba egiteko gaitasuna izan ere”*. Bertsoak oparitzen ditu Uriak: *“Urtebetetzeetan bertsoak botatzen dizkiet koadrilakoei”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion
Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Getxo Antzoki barria eraikitzen

Lanak aurrera doaz; iragarri dutenez, datozen hilabeteetako hondeaketa-beharrak direla eta, **auzokideek zarata eta kamioien joan-etorriak** jasan beharko dituzte

Azaroaren 12an hasi zen Getxo Antzokia kultur zentro barria eraikitzeko lanen lehen fasea izango den hondeaketa-lana. Udaletik aurrerratu dutenaren arabera, dena aurreikusi bezala joanez gero 13 hilabetez luzatuko da prozesu hau.

Aurrera doaz Getxo Antzoki kultur zentro barria eraikitzeko lanak. Duela hiru hilabete hasi ziren era ofizialean eta denbora honetan lan-eremuaren %70 hesituta egon da; urtarrilean, Basagoiti etorbidean jarriko den pasabidea amaitzen denean, %100 hesituko dute. Oinezkoen hainbat sarbidetan egon diren aldaketak, lehengora bueltatuko dira aipatutako pasabidea egiten denean.

Azaroaren 12an, hasi ziren hondeaketa-lanak. Udal iturriek, aurrerratu dutenaren arabera, jardunbide hau 13 hilabetez luzatuko da, osagarri naturalen ezaggarriek zein eguraldiak sortu ditzaketen arazoak lanak luzatzea eskatzen ez badute. Astelehenetik barikura, 08:00-13:00 eta 14:00-19:00 egongo dira beharginak.

Josu Loroño Komunikazio zinegotziak esandakoaren arabera, hondeaketan lan horiek auzokideentzat sortuko dituzten arazo nagusiak, kamioien zarata, zikinkeria eta ibilgailuen joan-etorriak izango dira. Horiek ahalik eta gehien gutxitze aldera, hainbat neurri hartu dira: “Obretan behar egingo duten kamioiak garbitzeko hartxinga pista ego-*kitu dute sarrera-urteera gunean. Horren*



Getxo Antzoki barria eraikitzen ari diren orubea

eraginez hauts eta basa gutxiago egongo da. Mikropilotaje lanak behin amaituta, urez betetako 'igerilekua' ipiniko dute ibilgailuak sartu eta urteten diren lekuan haiek hobeto garbitzeko. Era berean, tanga-kamioi batek garbiketa lanak egin-

«Udalak, lanek eragindako kalteak gutxitze aldera, pertsianak eta leihoak ixtea gomendatu die auzokideei»

go ditu aldian aldian”. Ordu laurdenero kamioi bat ibiliko dela aurreikusi dute, nahiz eta hori aldatu daitekeen lan kargaren arabera. Udaltzaingoa sarbideak eta urteerak eta inguruko zirkulazioa kontrolatzen egongo da, beharrezkoa denean.

Udaletik, auzokideek orain arte

izandako jarrera eskertu gura izan dute, eta datozen hilabeteetarako zenbait aholku eman dizkiete: “*Lan hauek eragingo dituzten arazoak ahal den guztian gutxitu aldera, auzotarrei eskatzen zaie neurri egokiak hartzea, berbarako, leihoak eta pertsianak zarratzea*”.

Informazio kanalak zabaldu dituzte (eskutitzak, e-posta, telefono berezia e.a.) horien bitartez auzokideei lanen gaineko eta horiek izango duten eraginari buruzko informazioa emateko. ○

Datu batzuk

- **13 hilabete:** hondeaketa lanen iraupena
- **Ordu laurdenero:** kamioi bat
- **Udalaren gomendioa auzotarrentzat:** leihoak eta pertsianak zarratzea

Hainbat zerbitzu batuko

dute Fadurako antzinako ostalaritza lokalak



Fadurako antzinako ostalaritza lokalak

Hasi dituzte Fadurako Udal Kiroldegiko antzinako ostalaritza lokalak ego-
kitzeko lanak eta 2010eko martxorako amaitzea espero dute. Taberna eta kafe-
etxea zenak, jatetxea, taberna bi, ostala-
ritza ikastetxea eta erabilera anitzeko aretoa izango ditu datorren udatik aurrera. 1.630.000 euro inbertituko ditu Udalak. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak, 700.000 euro emango ditu egitasmoa abiatzeko.

Imanol Landa alkateak esandakoaren arabera, proiektuaren helburua honakoa da: “*Instalazio zahar horiek egokitzea umeentzat babespeko gunea sortzeko beren gurasoek kirola egiten duten bitartean behar bezala artatuta egon daitezen*”. Erabilera anitzekoa aretoa eta ludoteka egongo dira eta bertan psikomotrizitate

eskolak eta irakurketa tailerrak antolatu-
ko dituzte, besteak beste. Horregaz bate-
ra, tabernabi, 80 mahaikiderentzako
jaketxea eta eskola egongo dira.

Lan-munduan txertatzeko irabazi asmorik bako enpresek kudeatuko di-
tuzte aipatutako azken eremu horiek. Getxolan Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuaren udal bulegoaren laguntzagaz, ikastaroak antolatuko di-
tuzte urte osoan zehar 40 langabeturen-
tzat. Herriko ostalarien ordezkariei behar dituzten beharginen profila galde-
tuko zaie, eta etorkizuneko ostalariak horren arabera hezitzen saiatuko dira. Alkatearen esanetan, “*profil soziala edu-
kitzeaz gain, proiektuak Fadurari bultzat-
datxoa eman gura dio, familia osoaren bateragune gisa*”. ○

MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAKO TAXI- AK IZATEKO HITZARMENA

Getxoko Udalak IMSERSO, Nagusien eta Gizarte Zerbitzuen Institutuagaz eta ONCE, Ezintasuna duten Pertsonen Integrazioarako Fundazioagaz lankidetzat-hitzarmena sinatu du, taxientzako irisgarritasun proiektuagaz aurrera jarraitzeko. Horregaz, mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailu egokitu barria edukitzea lortu gura da. IMSERSOK 8.000 euro ipiniko ditu, ONCEk 2.000 eta Getxoko Udalak 10.000 proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko.

UDAL TASAK BERE HORRETAN 2010EAN

Urriaren 26an iragarritakoaren arabera, Gobernu Taldeak 2010.urterako tasak eta zergak bere horretan uztea erabaki du hirugarren urtez. Krisiari aurre egiteko aurrera eroaten ari den ekintzen artean kokatzen da. Gaur egun, Getxo Bizkaiko 43. lekuan dago presio fiskalari dagokionez, Barakaldoren eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen atzetik. Getxoko PPK, EAJri leporatu dio “*Euskadiko zerga garestienak ordaindu beharreko herria dela Getxo*”. Horren aurrean, herriko EAJko taldeak, informazio kanpaina abiarazi du baieztapen hori gezurra dela salatuz.

GOI-MAILAKO ATLETISMO PISTA BARRIA EGINGO DUTE FADURAN

Datorren maiatzatik aurrera, nazioarte mailako txapelketak jokatu ahaliko dira Fadurako atletismo pistan. Izan ere, abendu-
an hasiko dira egungo kanpoko pista osorik zaharbarritzeko lanak eta maiatze-
rako amaitu gura dute. 1.092.000 euroko aurrekontua izango dute eta %90 Bizkaiko Foru Aldundiak emango du. Pistak egun-
goak baino barneko zelai handiagoa izango du; horren barruan, neurri homologatuko futbol eta errugbi zelaia jarriko dituzte. Pertika jauzi eta xabalina-jaurtiketarako gunek eta mailu jaurtiketarako kaiola.

Maialen Agirre eta Maialen Kortabarria > Areetako Udal Ludoteka

“Metodologia aktiboa erabiltzen dugu; umeak egile, sortzaile eta partaide dira”



Maialen Agirre eta Maialen Kortabarria, ludotekan

Irailetik, Bizarra Lepoan Euskara Elkartek kudeatzen du Areetako Eskoletako Plazan dagoen Udal Ludoteka. 5 eta 11 urte bitarteko umeak hartzen dituzte ludotekan, txanda bitan. Maialen Agirre koordinatzailea eta Maialen Kortabarria dinamizatzailea arduratzen dira jolasak, tailerrak eta talde dinamikak prestatzeaz. Aisiaz hezi gura dute, eta horretarako, egitasmo interesgarria prestatu dute.

—Zenbat lagun dago ludotekan?
—Txanda bi daude. Alde batetik, aste-lehen, eguazten eta barikuetan 5-7 urte bitarteko 45 ume inguru ditugu. Bestetik, martitzen eta eguenetan, 8-11 urte bitarteko 13 lagun daude. Horiek bazkideak dira, baina beti ez dira denak etortzen. Arrastiko 17:00etan hasi eta 20:00ak arte egoten gara. Sarrera eta urteera ordua librea da.
—Zer egiten duzue?
—Hiru hilero gai ezberdin bat lantzen dugu. Lehenengo hiruhilekoan Euskal Herria izaten ari da gaia: euskal ohitu-

rak, kultura, mitologia, dantzak... Bigarrenean, Europa hartuko dugu ardatz: Europako hizkuntzak, herrialdeak, ohiturak... Azken hiruhilekoan Mundua izango da protagonista. Azken honegaz, kulturartekotasuna landu gura dugu. Beste kulturetatik etorritako lagunak ditugu ludotekan, eta euren parte hartzea oso garrantzitsua izango da azken hiruhilekoan; euren jatorrizko kulturetako dantzak eta ohiturak irakastea eskatuko diegu gurasoei eta umei. Hori guztia lantzeko, eskulanak, jolasak, abestiak eta talde dinamikak erabiltzen

ditugu. Metodologia aktiboa erabiltzen dugu; umeak dira protagonista, egileak, sortzaileak eta partaideak.
—Zein hizkuntza erabiltzen duzue?
—Gure lehenengo berba euskaraz da beti. Dena den, umeren batek ez badu ulertzen beste hizkuntza batean azaltzen diogu; ez dugu inor gaizki sentiarazi gura, horrek euskararekiko jarrera ezkorra sortzea ekar baitezake. Euskara aisiagaz lotu gura dugu.
—Hileko azken barikuan ekintza bereziak egiten dituzue, zeintzuk?
—Edozeinentzat zabalik dauden ekin-

«Euskara aisiagaz lotu gura dugu; gure lehenengo hitza euskaraz da beti»

tzak antolatzen ditugu hileko azken barikuan. Azaroan adibidez, txalaparta ikastaroa egingo dugu. Gabonetan, euskal dantzak ikasiko ditugu. Herriko umeek eta elkarreek zabalik dituzte ludotekako ateak. Guretzat oso garrantzitsua da Getxoko eragileakaz harremanetan egotea, eta horregatik, eurekaz antolatzen ditugu barikuetako ekintza horiek. Proposamena daukana, hurrera dadila!
—Zelako erantzuna izan duzue?
—Oso pozik gaude orain arteko erantzunagaz. Umeak gustura etortzen dira eta ez dute alde egin gura. 8-11 urte bitarteko ume gutxi dago; horiek izena ematera animatu gura ditugu, lekua dago eta oso ondo pasako dute.
—Zer egin behar da izena emateko?
—Herritarren Harretarako bulego batera hurreratu baino ez dute; bertan emango dizkiete argibide guztiak. o

Informazio gehiago: 94 466 03 55/
magirre@getxo.net

Areetako karpa jarrita

azoken txanda heldu da; Komiki eta Mangarena izango da lehena, 27tik 29ra



Getxo Arte abenduaren 4tik 6ra egingo da

Ipini dituzte Areetan udazkeneko azokak hartuko dituzten karpa erraldoiak. Lehena, Getxoko VIII. Komiki eta Manga Azoka izango da, azaroaren 27an, 28an eta 29an. Gune bitan egongo da banatuta: alde batetik, komikiaren gunea egongo da Areetako Geltoki plazan; bestetik, mangaren gunea ipiniko dute Erromoko Santa Eugenia. Gune biek erakusketarako eremua, lan-tegiak, ekitaldi-aretoa eta argitaletxeentzako, dendentzako, erakundeentzako, fanzineentzako eta komikiagaz eta mangagaz zerikusia duen ororentzako merkataritza-eremua izango dute. Paco

Roca 2008ko Komiki Sari Nazionalaren irabazleak egin du aurtengo kartela, eta azokak irauten duen bitartean, Areetan egongo da.
Abenduaren 4tik 6ra, Getxo Arte Arte Sortu Berrien Aretoak hartuko du Geltoki plazako karpa. Artista gazteen lana sustatzeko eta ezagutzera emateko helburuagaz antolatzen den erakusketa erraldoia da Getxo Arte. Aurten 52 proposamen aukeratu ditu epaimahaiak eta diziplina ezberdinetako lanak ikusi ahal izango dira. o

Informazio gehiago:
www.salondelcomicedegetxo.net/
www.getxo.net

EUSKARA JARDUNALDIEN AZKEN TXANPA

Oraindino badago zer entzun eta zer ikusi XI. Euskal Kulturaren Jardunaldien barruan. 25ean, UK aldizkaria egiten dugun lagunok antolatutako erakusketa eta dokumentalaren proiektzioa ikusi ahal izango da 19:30ean Alday Patronatuan. Hurrengo egunean, Unai Elorriagak Londres kartoizkoa da bere azken eleberriri buruz berba egingo du 20:00etan Villamonte Kultur Etxean. 28an eta 29an musika izango da nagusi, Algortako azokan egingo den Merkaturaren kantetan ekimenean eta Andres Isasi Musika Eskolan egongo den Kerobia taldearen kontzertuan. Abenduaren 2an, 20:00etan, Bestela ondo...ezta? antzerki lana aurkeztuko du Jon Urraza algortarrak Piper's tabernan.

GAZTEIRUDIAK 2009 DEIALDIA ABIAN

Azaroaren 23tik abenduaren 11ra zabalik egongo da Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako Gazteirudiak lehiaketan parte hartzeko epea, gazte getxoztarrek egindako marrazkiak eta margolanak lortzeko helburuagaz. Lehiaketa Getxon bizi diren 12-30 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta eta kategoria bitan banatuta egongo da: orokorra eta Gazteak hilabetekarirako azalak aukeratzera bideratutakoa. Sariak 20 eta 40 euro artekoak izango dira.
Informazio gehiago: 94 466 03 53

BAPIRUEKO GABONETA-KO KOLONIETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Abenduaren 28an, 29an eta 30ean eta urtarilaren 4an eta 5ean Bapirueko gabonetako koloniak egingo dituzte Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko lagunek. Horietan parte hartu ahal izateko, izena eman beharko da azaroan. Elkarteko bazkideek, 23tik 26ra izango dute aukera; gainontzekoek, abenduaren 1etik 4ra. Ordain agiria eta osakidetzako txartelaren fotokopia Karitate kaleko 1. zenbakiko bulegora eroan behar dira; bertan, izen emate orria bete beharko da.

lagusana

libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59

(Tellagorri plaza)

48991 ALGORTA

Tf. 94 491 14 12

lagusana@lagusana.net

Daniel Tamayo > Margolaria eta Arte Ederretako pintura irakaslea

“Gaur egun estudio batean lan egitea luxu handia da artista batentzat ”

Abenduaren 6 ra arte egongo da Daniel Tamayoren “ Lamiaren ametsa. Memoria de un mural” obra Kultur Leioako erakusketa gelan.

—Zergatik “Lamiaren ametsa. Memoria de un mural” izena?

—Orain urte bi, Kultur Leioako Auditoriumaren *Ambigu* aretoan murala egiten hasi nintzen. Murala amaitu eta inauguratu zen arren, obra zabalagoa egitea adostu genuen, murala egiteko erabili nuen material eta irudiakaz. Horrez gain, obra zabaldu egin da oleo edota akuarela koadro gehiagogaz. Hau-ek guztiak, aurreko muralaren osagarri eta lan didaktiko bezala aurkeztu izan dira obran.

—Zer dela eta obra osoan zehar pertsonaia fantastikoak nagusi?

—Nire obrek beti horrelako itxura izaten dute; pertsonaia ugari, arkitektura eta paisaia fantastikoakaz. Esan genezake, hirugarren edota laugarren belaunaldiko surrealismoa dela.

—Pertsonaia fantastikoen artean, euskal mitologiako pertsonaiak ere aurki ditzakegu?

—Bai, obraren izenburuari erreferentzia eginez lamiak agertzen dira. Lamia uda-



Daniel Tamayo Leioako bere estudioan, bere azken obra ondoan duela

leko armarrarian modu alegorikoan agertzen den bitartean, lamiaren beste irudi askoz ere figuratiboagoa da, lotan agertzen dena.

Horrez gain, erreferentzia kulturalak ere topa daitezke obran zehar, aizkolariak edota San Juan gaueko suteak. Euskal Herriko erreferentziaz gain, beste kultura batzuen erreferentzia ere bada- go, Afrika edota Ozeano Bareko kultu- retakoak, besteak beste. Gainera, Erdi

Aroko irudiak ere aurki daitezke.

—Nola ikusten duzu gaur egun pintu- ra munduaren panorama?

—Euskal Herriari dagokionean, oso txarto ikusten dut orokorrean pintura- ren mundua. Nire eskoletatik talento handiko pertsonak pasatu arren, ikasle horiek ezin izango dute etorkizunean ar- tista, sortzaile moduan behar egin. Gaz- te artistentzat estudio batean behar egi- tea luxua da egun. ○

Abenduaren 13an

Nekazaritza eta Abeltzaintza **Azoka** helduko da Leioako plazara



Nekazaritza eta abeltzaintza hurretik ezagutzeko aukera egongo da Leioan

Abenduaren 13an hartuko dute lei- oztarrek, aurtten, Nekazaritza eta Abel- tzaintza azoka.

Hamaika ekimen antolatu dituzte egun horretan baserritik gertuago senti gaitezen. Goizeko 10:00etan hasiera emango zaio azokari, hortik aurrera jai- giro polita izango da goiz osoan zehar.

Goizeko 11:00etatik eguerdiko 15:00ak bitartean, trikitilariak, hau- rrentzako tailerrak, poneyak eta herri kirol erakustaldiak, besteak beste, kale- ak girotzeko izango dira. Errekalde pla- zan dastatzea eta zaldiak, ahuntzak eta hegaztiak izango dira erakusgai.

Bulebarrean, orde, behiak eta idiak aurkituko ditu bisitariak. Abereakaz

batera, produktuen erakusketa, dastake- ta eta salmenta izango dira. Nekazari- ek eta abeltzainek ekarriko dituzten pro- duktuen artean, pateak, eztiak, ortukariak, txerriak, ogia, landareak, gazta, sagar- doa eta txakolina dastatu eta erosteko aukera izango da.

Eskaintza zabal honetaz gain, eguer- diko 14:00etan Leioako nekazari- omenaldia egingo zaie, bide batez, be- raien lana eskertzeko asmoz. Horren ostean, eguneko Gazta Lehiaketan parte hartu duten gaztagileen artean Sari Ba- naketa burutuko da. Azkenik, eguna amaitzeko, postuen eta partaideen giro- tze lehiaketaren Sari Banaketa burutuko da. ○

PINUETA AUZOKO OBRAK AURRERA DOAZ

Martxan dira jada, Gatelubideko bizilagunei zuzendutako aparkalekuaren eraikitze lanak. Horrela, 400 ibilgailurentzako lurrazpiko aparkalekua eraikiko da zonaldean. Aparkalekuaren inguruko urbanizazioa ere proiektu honetan sartzen da; izan ere, bertan plaza bat eraikiko da herritar guztientzat, jolaslekua eta frontoiagaz. Udalaren arabera, obra 20 hilabete barru amaituta egon daiteke.

BERTSOPAPER LEHIAKETA ABIAN

Euskararen eguna ospatzeko eta era berean, Bertsoa euskal literatur generoa suspertzeko helburuz, Bertsopaper izeneko lehiaketa abiatu dute Leioan. Parte hartzaileak hiru kategoriatan lehiatu ahal izango dira; 15 urtera arteko kategorian, zein 15 urtetik gorako kategorian eta hirugarrenik, Leioako eskoletan ere, lehen hezkuntzako ikasleek parte hartzeko aukera izango dute. Lehiakide bakoitzak gura beste bertsopaper aurkeztu ahal izango ditu. Baldintza bezala, lan bakoitzak lau bertso izan beharko ditu eta zortzi gehienez. Parte hartzaile bakoitzak neurria libreki aukeratu ahal izango du. Lehiaketaren epaimahaikideek estiloa, kontaketa-aren garapena eta originaltasuna hartuko dute kontuan. Bertsoen gaiak Euskara edo Euskararen Eguna izan beharko du. Lanak azaroaren 25era arte jasoko dira Kultur Leioan, euskara zerbitzuan.

HAURRESKOLA OTSAILEAN ZABALIK

2010eko otsailaren 1ean atek zabalduko ditu Leioako Artatza Haurreskolak, 0-2 urte bitarteko umeentzat. Leioako Udalak Eusko Jaurilaritzako Haurreskolen Partzuergoagaz egin duen lankidetzak eta hitzarmenaren ondorioz aurrera egin duen proiektua da honakoa. Umeen izen-emate epea azaroaren 20an amaitu zen.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2

Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

BEST

LINE-ARRENO ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO ERROTULUAK eta INPRESIO DIGITALAK egiten ditugu

e-mail: hirutab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BETIKO

IRASTOLA

— 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.

— Ingelesa 4 urtetik aurrera.

— Frantsesa DBHn.

— Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.

— Eskolaz kanpoko ekintzak: muska, gitara, adierazpena, saskibaloi, eskuplota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...

— Frontoiak, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 484 33 84 / 94 484 33 87

e-mail: leioa@irastola.net • www.irastola.net/haurren-zerbitzuak

16UK

UK 17

Urtzi Perez > “Amada Amantis” laburmetraiaren zuzendari eta gidoigilea

“Ikuslea hausnarketara bultzatzea eta moral faltsua-
ren kritika egitea izan dira xede nagusiak”

Azaroaren 29an 19:00etan
estreinatuko da Urtzi Perezen
bigarren laburmetraia Lutxana-
Erandioko eskoletan. Erandioko
Azaro Kulturalaren egitarauaren
baitan aurki dezakegu Erromoko
autodidaktaren “Amada Amantis”
lana.

—Zein da “Amada Amantis” lanaren
gai nagusia?
—Bizitzaren trenak garrantzi handiko
elementuak dira laburmetraian. Batzu-
etan, tren horiek hartzen ausartzen gara
beste batzuetan aldiz, joaten uzten ditu-
gu. Eta inoiz ez badugu ematen trena
hartzeko urratsa, ez dugu inoiz jakingo
zer gerta daitekeen. Hori da laburme-
traia-
ren gai nagusia.
—Zergatik orduan, “Amada Amantis”
izenburua, maitasun istorioa da?
—Gurago dut horren inguruko infor-
mazioa ez aurreratzea eta bakoitzak
laburmetraia ikusi ostean horren inguru-
ko hausnarketa egitea.
— Zein alde dago “Ahora” izeneko
aurreko laburmetraia eta “Amada
Amantis” lanaren artean?
— Lehenengo laburmetraian ez nuen
esperientziarik. Artistikoki, bigarren
laburmetraia honetan ideiak askoz ere



Perezen lanak www.youtube.com/user/UrtziPerez web orrialdean aurki daitezke

ordenatuago daude, gainera linealagoa
ere bada. Beraz, lehenengo eta bigarren
lanen artean alde nabarmena dago.
Teknikoki ere, jauzi handia eman dut,
gero eta erosoago sentitzen naiz ikus-
entzunezko bitartekoagaz, hortaz, adie-
razi gura dudana nola adieraziko dudana
argiagotzeko.
—Zeintzuk dira laburmetraiaren esze-
natoki nagusiak?
— Bilbo Handia eta Erromoko zenbait
kale antzeztoki nagusiak izan dira.

Laburmetraian, Bilboko itsasadarra,
beste pertsonaia bat izan da.
—Laguntza ekonomikorik izan duzu?
— Ez, eskatu ditudan arren ez dizkidate
eman. Lagunek eta inguruko pertsonen
lagundu didate laburmetraia egiten.
—Zer lortu gura izan duzu laburme-
traia-
gaz?
— Jendea pentsatzera bultzatzea, gauzak
pentsatu behar direla erakustea. Horrez
gain, moral faltsuari kritika egin gura
izan diot. ○

Mugagabe Zirkuitua 2009

azaroaren 28an Erandioko azokara helduko da
“Encuentros” obragaz



Mugagabe Zirkuituan dagoen Simulacro taldearen antzerkia

Mugagabe Zirkuitua 2009 Bizkaiko
antzerki konpainia ezberdinek eratutako
proiektua da. Mugagabek antzerki pare-
kidea eta diziplina anitzekoa aldarrika-
tzen du. Zirkuitu honen helburuen arte-
an, jendea antzerkira hurreratzea dago;
izan ere, euren esanetan “jendea an-
tzerkira ez doala errealtate da eta ezin
dugu ihes egin”. Proiektu honetarako
Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin
eta horri esker Mugagabe zirkuitua
Euskal Herriko txoko ezberdinetara
eroan dute.
Mugagabe zirkuitua osatzen duten
konpainien artean, Nexo antzerkia,
Maskarada, Simulacro antzerkia,

Gilkixaro edota La Ressistens topa di-
tzakegu. Azken hau, La Ressistens kon-
painiak “Encuentros” izeneko antzerkia
eskainiko du azaroaren 28an Erandioko
Azokan. Talde honek korrante kritiko
artistikoa lantzen du. Bizitza kulturala
aldarrikatzen du, antzerkiaren, artearen
komertzializazioa salatuz. Bere burua
erresistentziako olerkari moduan defini-
tzen du. Kritikoa eta hausnarketara bul-
tzatzen duen antzerkia sortzea du xede.
Erandiok azaroaren 28an hartuko duen
obra, izaera horren eredu argia da; izan
ere, “Encuentros” obrak gizakiaren al-
derik zitalena erakusten du elementu
abstraktuak erabiliz. ○

IV. KOMIKI-LEHIAKETA ABIAN DA

Erandioko Udalak martxan jarri du
laugarren urtez, Komiki lehiaketa. 15-35
urte bitarteko edozein gaztek parte hartu
ahal izango du lehiaketan. Gazte
bakoitzak, bakarka nahiz taldeka, asko
jota, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu
kategoria bakoitzean.
Aurkeztutako lanak zuri-beltzean nahiz
koloretan izan ahal dira, eta euskaraz zein
gazteleraz. Gai librekoa izango den arren, ez
da onartuko eduki, bortitz, sexista zein
arrazistatik. Lanak entregatzeko epea
otsailera arte luzatuko dute.

AZARO KUTURALAK AURRERA DARRAI

Azaro kulturalaren amaiera gero eta
gertuago dago. Azken txanpa ere,
eskaintza eta ikuskizunez beteta dator.
Esaterako, azaroaren 23, 24 eta 25ean
zehar antzerki fisikoko tailerra izango da.
Hilaren 27an aldiz, Plataforma Tiranteren
“La Vie en 2” obraren estreinaldi mundiala
izango da Lutxanan. Horren ostean “miss
ovarios 33” ez-kontzertu umoretsuagaz
gozatu ahal izango dute bertara
hurreratutakoek. Azkenik zenbait
laburmetraiaren emanaldiagaz agur esango
diote 2009ko Azaro Kulturalari.

ERANDIOKO MEDIKU KONTSULTATEGIAREN LEKU ALDATZEA

Erandioko Udalbiltza Osoak erabakia du
Erandio Goikoako zentro sozialean, osasun
zentroa kokatzea. Beraz, laster izango dute
erandioztarrek euren osasun etxe barria.
Jada ez dute antzinako Udaletxean
ziztuzten hezetasun arazoak izango,
Erandio Goikoako osasun etxea askoz ere
epelagoa baita. Horrez gain, espazioa ere
askoz ere zabalagoa izango da, horrela,
mediku-kontsultak egiteko hiru areto
izango ditu eraikin barriak eta itxarongela
handia.

Zure publizitatearen
Zure publizitatearen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

Basolanak

Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

• Zuhaitz landaketa
• Inausketak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

ETXEBIZITETARAKO IGOGAILUAK
ESKAILERA IGOGAILUAK
PLATAFORMAK

ARLAN ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54
www.arlan.biz

JARDUERA UGARI UDAL
KIROLDEGIAN

Sopelako Udal kiroldegian eskaintza zabala izango da denboraldi honetan. Udal igerilekuetan esaterako, jarduera desberdinak egiteko aukera egongo da. Bertan, ordutegi askea izango da goizez. Jardueren artean, aquafitnesa, kaloria-erretzea eta igeriketa hegatzakaz aurkitu ahal izango dute sopoloztarrek. Horrez gain, Urko Kiroldegian spinninga egiteko aukera ere egongo da. Ekintza hauek hartzeko Kirol azpiegituran zenbait hobekuntza egin dira, igerilekuan, esaterako, ultramore sistema erabiltzen hasi da. Izan ere, sistema hori eraginkorragoa, osasungarriagoa (kloroaren erabilera %60 jaitsi da) eta ingurumenagaz bateragarriagoa da.

OLIOA BIRZIKLATZEKO
EDUKIONTZIEK
ARRAKASTA IZAN DUTE

Mota desberdineko bilketa datuak batu eta aztertu dira irailean, Sopelan. Horrela, aztertzaileek olio birziklatzeko edukiontziek harrera ona izan dutela ondorioztatu dute. Edukiontzi horiek Loiola Ander Deuna 50. Sipiri kalea, Arabeta kalea eta Gernika enparantzan daude. Sopelan, 4.800 kilo batu dira 2009an, Iberre, Zubigane eta Loroño-Eleizaldeetako edukiontzietan. Beraz, 1,15 kilo arropa, oinetako batu dira ehun biztanleko.

TURISMO BULEGOAK
KALITATEKO Q
IZENDAPENA LORTU DU

Sopelako Turismo zerbitzuak bere kudeaketa sistema UNE 18700.2008 araudira egokitu eta gero Q kalitateko izendapena eskuratu du. Udalak adierazi duenez, Q lorpena prozesu luzearen ondorioz eta egindako lan handiaren saria izan da. Turismo bulegoak orain urtebete zuen bere zerbitzuaren kalitatearen aldeko apustua.

Kurtzio Kultur Etxe

barria azaroaren akabuan hasiko da zerbitzuak eskaintzen



Ekimen kultural ugari burutu ahal izango da Kurtzion

Hilabeteetako lanak egin ostean azaroaren 29an inauguratuko dute hainbat ekintza batuko dituen Kurtzio Kultur Etxea. Eraikinak guztira 1.600 metro koadro ditu eta herritarrek erabilgarritasun zabala eman ahal izango diote. Horrela, Kultur Etxe barriak hamaika zerbitzu eskainiko ditu; Gazte Informazio Bulegoa, 200 pertsonako aforoa duen auditoriuma, gazte eta txikietako lokalak, informatika aretoa eta ludoteka, besteak beste. Kanpoaldean ere, formatu txikiko konzertuak eta antzerki ikuskizunak anto-

latzeko leku aproposa egongo da. Horrez gain, Gaztelekuak ere lekua izango du Kurtzion, horrela 13 eta 18 urte bitarteko gazteek beraien aisialdiaz gozatzeko aukera izango dute.

Herritarrei zuzendutako zerbitzu hauetaz guztietaz gain, egoitzarik ez duten elkarteei zuzendutako 3 gela egongo dira, elkarteek baldintza batzuk bete ostean erabili ahal izango dituztenak. Gela anitzean, aldiz, hitzaldiak, proiektzioak, formato txikiko ikuskizunak, zein ikastaroak burutzeko aukera ere eskainiko du Kultur Etxe barriak. ○

Josu Landaluze > Hirigintza zinegotzia

“Haurreskola otsailean martxan jartzea espero dugu”



Sopelako Haurreskola barria

Sopelako haurreskola eraikitzeari ekin zion Udalak orain dela zenbait hilabete. Obrak amaitzeaz daudenean epea zabaldu du, gurasoek umeen izena eman dezaten. Horrela, epea azaroaren 2tik 20ra bitartean izango da.

Landaluzeren hitzetan, Sopelako haurreskola eraikitzearen erabateko arrazoi nagusia “0-2 urte bitarteko haurreskola publikorik ez egotea izan da”. Zipiriñe Eskolako zerbitzua urte bi baino gehiagoko umeei begirakoa dagoenez, herrian hutsune hori zegoen, “haurreskola barriak Zipiriñeren osagarria izan gura du, orain 0-2 urte bitarteko umeei daukaten eskaintza bakarra pribatua da eta”.

Haurreskola barrian eskainiko dituzten zerbitzuak euskara hutsean izango dira, horrela hitzartu baitu Haurreskolaren Partzuergoak. Azaroaren 20an, eskaerak egiteko epea amaituko da eta 23an osterara, izena emateko orriak eta dokumentazioa Haurreskola

Partzuergora bidali beharko dituzte interesdunek. Ondoren, abenduaren 4an, behin-behineko zerrendak argitaratuko dituzte eta hilaren 16an behin betikoak. “Haurreskola barrian, 0-1 urte bitarteko 4 gela egongo dira, gela bakoitzean 8 ume egongo dira. 1-2 urte bitarteko umeen 4 gela izango dira eta gela bakoitzean 13 haur”.

Eraikinak 8 gela izateaz gain, ekintza askotarako espazioa ere izango du, joko-entzako lekua, janariak prestatzeko gela

“Guztira 84 umerentzako lekua izango da haurreskola barrian”

egokitua, zuzendaritza eta idazkaritza, langileentzako komun eta aldagela, biltegia eta kanpoko patioa umeei jolas dezaten. Udalak otsailean haurreskola barria martxan jartzeko asmoa dauka “irekiera atzeratu behar ez izatea espero dugu eta otsailean martxan izatea”. ○

DIDAK

hAMILTON

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

Taldeak, enpresak eta partikularrak

Eskolaz kanpoko ekintzak

Maila guztiak

Ingelesa 3 urtetik aurrera

Talde txikiak

Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.

Tf. 94 676 30 12

info@didakhilton.com

4 bide

pinturak

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA

Iturbarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

• Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa

• Irakaskuntza eta hezkuntza

• Informazioa eta partaidetza

• Eleaniztasuna

• Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA

Tf. 94 676 02 66

Email.: sopela@ikastola.net

ABENDUAREN 4AN
EUSKARAREN EGUNA

Berangon euskararen eguna abenduaren 4an ospatuko da. Egun honetan, euskararen erabilera sustatzeko asmoz, Berangoeta Kultur Etxean umeentzako ekimena antolatu dute. Ikuskizunak “Tipitinen gabonak” izena du. Tipitin, Mickey eta Minnie Mouse gabonetako zuhaitza atontzera etorriko dira Berangora. Hau guzti hau, malabarista, pailazo zein margoaren laguntzagaz egingo dute. Ikuskizuna Berangoeta Kultur Etxean izango da arrastiko 18:30ean.

GABONETAN EGITARAU
KULTURAL ZABALA

Gabonetako oporretarako egitarau zabala eta anitza antolatu dute Berangon. Hamaika ekimen izango dituzte umeek nahiz nagusiek. Asko dira, baina, umeei zuzendutako ekintzak, pailazoak, antzerkiak, urteerak, skate kurtsoa besteak beste. Ekimen batzuetarako aurre-inskripzioa egin beharko da eta ume ugari egonez gero, zozketa bitartez erabakiko da nork parte hartuko duen. Nahiz eta umeentzako eskaintza zabala izan, nagusiek ere, ekintza ezberdinetaz gozatu ahal izango dute gabonetan, abenduaren 29an, esaterako, Nagusien Etxean musika klasikoko taldea izango dute entzungai. Abenduaren 23an, aldiz, ikusle ororentzat Ken 7 taldea izango da 19:30etik 23:30era. Kontzertura joateko, aurretik apuntatu beharko da eta sarrerak izen-emate zerrendaren arabera banatuko dira.



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T. 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 48
(sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 GETXO



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTERO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Berangoko HAPOK

aurrera darrai udalbatzan behin-behineko apro-
bazioa berretsi ostean



HAPOk Berangon 2.321 etxebizitza inguru eraikitzea aurreikusten du

Hiri Antolamendurako Plan Oroko-
rraren behin-behineko onarpena berretsi dute azaroaren 6an egindako plenoan. Izan ere, pleno hau, herritarren alegazioak kontuan hartu ostean egin zen. Herritarrek aurkeztutako alegazioen artean, onartutako alegazio biak izan ziren erabatekoak behin-behineko onarpena berrikusteko; alde batetik herritar batek HAPOren aurkezpen testua euskaraz ez egoteagatik egindako alegazioa, eta bestetik, Otxandategi eremuko ordezkariak egindakoa, hauxe bertako ordenamendu txikiagokoaren

harira izan zen. Horrela, alegazioak onartuta, eta horiek exijitzen dituzten aldaketak burututa Berangoko HAPOk aurrera egin du EAJ, PSOE eta EA alderdien aldeko bozkakaz. Berango Eraikitzen elkarteak aurkeztutako HAPOren aurkako alegazioak 236 atxikimendu lortu zituen uztailean. Bestalde, Lantzarteko Auzokideen elkarteak abiatutako sinadura bilketa herri ekimenak, 990 biztanleren atxikimendua lortu eta Udalean aurkeztu ostean, izapiderako onartu zituzten, aurrerapentzat jo dute auzokideek. ○

Gertuko Barrikako Auzokide Elkartea > kezkatuta

“Udalaren hirigintza plana basa-
keria hutsa dela uste dugu”




Barrikako auzokide elkarteko zenbait kide

Kezkak bultzatuta, ekainean sortu zuten Barrikako zenbait lagunek Gertuko Auzokide Elkartea. Ez daude ados Udalak herrian aurrera eroan gura duen Garapen Planagaz. Herritarren parte hartzea aldarrikatzeaz gain, ingurugiroa eta paisaia errespetatzea eskatzen dute elkarteko 56 kideek.

—**Zein da elkartearen xede nagusia?**
—Udalak prestatuta daukan hirigintza planagaz kezkatuta batu ginen zenbait auzokide. Gure ustez, basakeria hutsa da, horregatik erabaki genuen elkartea sortzea, Udalean egiten dena kontrolatu eta gure iritzia emateko. Gobernu taldea EAJkoa da eta alkatearen gidaritzapean zentzu bako planak bultzatzen ditu, garapen jasangarriaren aurkakoak guztiak. Horien aurrean, oposizioaren jarrera erabat pasiboa izan da; kasu askotan, alkateak udalbatzetan alderdi

guztiak ez egotea lortu du, trikimailuen bitartez. Ez da batere etikoa.
—**Hori lortzeko zer egin duzue?**
—Uztailean Plan Orokorren aldaketaren aurrerapena aurkeztu zuten. Astakeria iruditu zitzaigunez, iradokizun sorta aurkeztu genuen. Horrez gain, aurrerapena bertan behera uztea eskatu dugu.

«Oposizioaren jarrera erabat pasiboa izan da; ezin dugu hori onartu»
—Zein aldaketa proposatu dituzue?
—Ez dugu uste ez dela eraiki behar. Herria garatu behar da eta gure seme-alabentzat etxebizitza babestuak egotea gura genuke. Baina gauzak zentzuz eta modu jasangarrian egin behar dira; ezin da edozein lekutan eraiki. Bestalde, zerbitzuak hobetu behar dira: garraioa, osasun zentroa e.a. ○



TURQUESA
C/ Bidebarrieta nº2 junto a metro Las Arenas
94 657 69 17
WWW.NOVIASATURQUESA.COM

BASTARTENA



URDULIZ
Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

EUSKARAREN ASTEA
EGINGO DUTE PLENTZIAN

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da mundu osoan. Hori dela eta, euskararen astea antolatu du Plentziako Udalak azaroaren 26tik abenduaren 4a bitartean. Umeentzako, zein nagusientzako ekin-tzak egongo dira: tailerrak, trikipoteoa, pailazoak, ipuin kontalaria eta Koikiligaz futbol entrenamendua, besteak beste.

ANTZERKI TALDEA
URTARRILETIK GORLIZEN

Gorlizko Udal Liburutegiak aukera eman gura die antzerkia egin gura duten gorliztarrei. Horretarako, amateur antzerki tailerra ipiniko du martxan urtarritetik aurrera. Astean behin batuko dira eta ikasturte amaieran antzerki saioa eskainiko dute. Tailerrak zati bi izango ditu: antzerki inimizazioa eta eratze eszenikoa. Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko.

Informazio gehiago: 94 677 40 00 edo liburutegia@gorliz.net

HERRIAREN IRITZIA
EZAGUTZEKO INKESTA

Urdulizko Udala inkesta bat egiten hasi da, herritarrek Urdulizi buruzko zenbait gairen inguruan duten iritzia ezagutzeko. Telefono bidezko inkesta anonimoa da eta enpresa pribatu batek daroa. Galderetan mota guztietako gaiak jorratu dituzte: udal kudeaketa, garraio publikoa, eskola-zerbitzuak, lan aukerak, kutsadura, segurtasuna, garbitasuna, Kultur Etxeko programazioa...

GORLIZ

Uresarantzako errepidea konponduko dute



Kiroldegiko biribilgunetik Entrepinos hotelera doan errepide zatia konponduko dute

Urriko udalbatzan onartu zuen Gorlizko Udalak Uresarantzako errepideko zati bat eskuratzea. Orain arte, Bizkaiko Foru Aldundia izan da BI-3158 errepidearen jabea; baina, oinezkoen segurtasuna hobetu ahal izateko, errepidearen kudeaketaz arduratzea erabaki zuen Udalak. Mantenu gastuak bere gain hartzearen truke, Aldundiak 156.105 euro emango dizkio Gorlizko Udalari, hobetze lanak aurrera eroan ahal izateko. Ibilgailuen abiadura moteltzeko, hiru pasa-

bide jaso eta semaforoa jarriko dituzte. Horrez gain, oinezkoentzako behin-behineko espaloia egingo dute. Lanak datorren udarako amaitzea aurreikusten da.

Hala ere, Uresarantza errepideko zatirik arriskutsuenak, bihurguneak, Foru Aldundiarena izaten jarraituko du. Udalak zati hori konpontzeko eskatzen zuten auzokideen 5.000 sinadura bidali bazituen ere, epe laburrean ez dago hori konpontzeko asmorik. ○

Aza. 23 - Abe. 14

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

LEIOA

► **Daniel Tamayoren erakusketa.** Kultur Leioan abenduaren 6ra arte ikusgai.
► **Txotxongiloak mundu bat.** Abenduaren 14an, erakusketa aretoan, sarrera doan.

PLENTZIA

► **Erakusketa Kolektiboa.** “Gorputza, Haragia eta Arima” azaroaren 25etik abenduaren 14ra arte Kultur Etxean.

MUSIKA

LEIOA

► **Munduko musikak.** Azaroaren 27an, XX. Musika Denboraldia Leioako Auditoriumen, 21:00etan.

GETXO

► **Abestiak Merkatuan.** Azaroaren 28an eguerdiko 12:00etan abesti ezagunak abestuko dituzte Algortako azokan.

SOPELA

► **Euskal kantarik Onena.** Abenduaren 5ean, kontzertua arrastiko 20:00etan Kurtzio Kultur Etxean. Gonbidapenez.

ZINEMA

GETXO

► **ZINEBI.** Labumetraia eta zine dokumentalaren Nazioarteko jaialdia azaroaren 24an Algortako Kultur Etxean 19:30ean, sarrera doan.

GORLIZ

► “Munduaren bira” haur zinema.

► **Kontzertua**
Kerobia: papera eta kartoia

Azaroaren 28an, “Papera eta kartoia” trilogiaren bigarren alea ekarriko du Kerobia taldeak Andres Isasi Musika Eskolara. “Materia organikoa eta gainerakoak” lana kaleratu ostean, lan barriagaz datoz. Azken hau, gogoetan eta konposizioan, eszenatoki barrien bilaketan oinarritzen da. Taldea “Rose Escargot-en” eta trilogiaren lehenengo zatiaren arteko oreka bat da. Horrela, beste behin ere, nafarrek joera barrituak uztartzeari ekin diote. Honetan ere, Kerobiaren lanetan gertatzen den legeaz, euren abestien letrek itzelezko pisua mantentzen dute, testuek kanten arteko hari lotzaile lana egiten dute.

• **Non:** Andres Isasi Musika Eskolan • **Noiz:** Azaroak 28, 22:00etan

Azaroaren 28an 17:00etan, Kultur Etxean.

Abenduaren 5ean 18:00etan Kultur Etxean.

► “Cher Ami”
Abenduaren 12an, 18:30ean Kultur Etxean.

SOPELA

► **Euskal Zinemaren Astea.** Azaroaren 29an, 18:30ean “Zorion perfektua” pelikula ikusgai Kurtzio Kultur Etxean.

URDULIZ

► “Shorts: La piedra magica”. Abenduaren 28an Kultur Etxean 18:00etan.
► “School Rockband”.

ANTZERKIA

URDULIZ

► “Teatro de las vacaciones de Josefa” Kultur Etxean 18:00etan.

GETXO

► “Bestela ondo ezta...?”
Helduentzako umore antzerkia, “Piper’s” tabernan, 20:00etan.

ERANDIO

► “Los colores del humor”. Abenduaren 5ean, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean, 19:30ean.

BESTEAK

GETXO

► “Londres kartoizkoa da.” Unai Elorriagaren liburuaren aurkezpena Algortako Kultur Etxean azaroaren 26an, 20:00etan.
► **Topaketa literarioa.** Azaroaren 27an Algortako Kultur Etxean Josune Muñozen eskutik, “Badakizu zergatik irakurtzen duzun irakurtzen duzuna?” hitzaldia.
► **Komiki eta manga azoka.** Abenduaren 27tik 29ra bitartean Santa Eugenia kokatutako karpan.

GORLIZ

► **Katramila tailerra.** Gurasoentzat, azaroak 27, 18:00etan Kultur Etxean.

SOPELA

► **Sopesex.** Abenduaren 8an sexologia aholkularitza zerbitzuaren saioa, Kultur Etxean.
► **Pala finalerdia.** Abenduaren 12an, Bizkaiko pala txapelketaren finalerdia, 18:30ean Udal-pilotalekuan.
► **Haurrentzako jolasak.** Abenduaren 5ean, meatzarien joko eta jolasen jaia udaletxeke plazan, 12:00-14:00.

BERANGO

► **Defentsa pertsonala tailerra.** Azaroaren 27tik 29ra, 18:00- 20:00 arte Gaztelekuan.
► **Azokatxoa.** ACADAE elkarteak azoka antolatuko du azaroren 28an, 10:00etan Frontoian.

[albuma]



Giro ona eta hezea

Azaroaren 13tik 15era giro polita sortu zen hezetasun handiena dagoen Algortako auzoan. Lapikoko txapelketak auzoko sukaldariak festara hurreratu zituen, aurten crosak bere lekua berreskuratu du eta XIX. Fandango eta Arin-arin txapelketak dantzan ipini zituen ikusleak. Jai giro ederraz gain, aldarrikapenerako beta ere izan zen, horrela, Gobelako auzokideek Hezetasunean zehar zabaldu zuten salaketa.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Auzoko umeak

Plentziako Eleiz enparantzan

Denbora igaro da, argazkian ikusten diren haurrak jolasteari utzi ziotenetik. Ziur akorduan izango dituztela, Eleiz enparantzan egindako jolasak. Orduan, ez zegoen jolas garestirik eta irudimena zuten lagun handienetakoa.

Hala ere, hortxe elizaren babespean, orduak eta orduak ematen zituzten besterik ezean. Egun, umeek ez dute pijama itxurako jantzirik, ezta denak elkarregaz alde batetik bestera ibiltzeko ohiturarik ere. Jada, ez dute orduko irudimena ere. Orain, sarritan, nahikoa dute ordenagailu edota kontsola partida ondo jolasteagaz, orain kalekumeak baino etxezuloagoak baitira.

Eliza oster, enparantzan inor gutxi babesten duen arren, umeen babesle nagusi ei da.

[berbetan]

Maiatza geroztik da Maria Silvestre (Bartzelona, 1967) Emakumearen Euskal Erakundeko, Emakundeko zuzendaria. 25 urte inguru daroaz Euskal Herrian, Bilbo aldean, bizitzen Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktore den Silvestrek, eta aurreko lau-urtekoan Deustuko Unibertsitateko dekanu izan zen. Hilaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, horren inguruan berba egiteko eta berdintasunean bizi garelako behe-lainoa garbitzen lagun diezagun batu gara beragaz; bidenabar krisiaren eraginaz, antzinako matriarkatuaren ustezko eraginaz, gizonezkoen partehartzeaz e.a. jardun du Emakundeko buruak.

Maria Silvestre

Berdintasun bideak jorratu asmoz

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Emakunde**

—“Berdintasunaren irudikeria aurrez aurre” bizi dugula adierazi barri duzu, bide luzea dugu aurretik oraindino.

—Gizon-emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egiteko borondatea, eginkizuna dugunok dugun arazoetako bat da. Orain 20 urte, XIX. mende amaieran, emakumezkoen sufragioaren eta ordezkaritza politikoko guneetan sartzearen alde borrokatzen zenean, emoten du arrazoi “argiagoa” zegoenez, errazagoa zela jendea kontentitzea benetako desberdintasun baten aurrean geundela. Ostera, orain, berdintasuna eraikitze bidean asko aurreratu dugun honetan, zailagoa da desberdintasuna oraindino izan badela sinestaraztea; desberdintasunaren mugak meheagoak direlako... Baina badira! Gizonek eta emakumeek ez dituzte aukera berdinak mila arlotan (adib.: benetako erabakitze guneetan sartzeko), edo ez dute horietaz berdin gozatzeko aukerarik. Egunerokoan ere nabari da, berbarako, elkar aditzea andrazkoei bakarrik egozten zaie, emoten du andrazkook bakarrik dugula elkar aditzeaz ardu-

ratzeko betebeharra. Ondorioz, andrazkoak izan ohi dira lanaldia murriztu, eszedentzia hartzen dutenak e.a. Horregatik ere soldata-haustura handiagotzen da; aisialdirako denbora gutxiago dute... Hori dela eta, egunerokoan gizonek eta emakumeek denbora ezberdin erabili, banatzen dute, kasu gehienetan andrazkoen kalterako. —“Diskurtso ofizialaren” arabera, krisi ekonomikoak eragin larriagoa du gizonezkoiei dagokienean.

“Krisiak gizonezkoari beste edo gehiago eragiten dio emakumezkoari; bestelako diskurtsoa gezurrezkoa da”

—Agian huts egiten gabilta. Egia da, badirela ekoizpen sektore batzuk (eraikuntza, automobil-industria) gehiago jasaten dabilatzala krisiaren ondorioak; horiek oro har gizon-sektoreak dira, beraz... Baina horrek ez du esan gura krisiak eraginik ez daukala andrazkoengan, guztiz kontrakoa, eragin handia izaten ari da: krisiaren eraginez au-

rretik behin-behineko, prekarioak ziren lanak, are prekarioago bihurtzen edo desgertzen ari direlako; eta horietako asko emakumeek betetzen dituztelako; eta jakin gura nuke zer gertatzen ari den langabezia lotu den gizona eta diru sarrera duen emakumearen etxean, ea gizonezkoak esparru pribatuaren ardura hartu duen, ala andrazkoa den elkar aditzea bere gain hartzeaz gain gizonezko nahigabetua ere sufritzen ari den. Krisiak esparru pribatuan, egune-

rokoan duen eragina ere aztertu beharko litzateke. Bestalde, esparru ekonomikoan, langabezi-tasa, jarduera-tasa, enplegu-kolokatasun eta abarri dagokienez, krisiak gizonezkoari beste edo gehiago eragiten dio emakumezkoari; bestelako diskurtsoa gezurrezkoa da, biztanleria osoari eragiten dio; eta prekariedade, kolokatasun handia-



goa jasaten jarraitzen dute emakumezkoek.

—**Andrazkoek zailtasunak dituzte ardura karguak onartzeko eta horietara heltzeko.**—Enpresa zuzendaritzetako goi-karguetara, administrazio kontseiluetan, unibertsitate katedretan, errektore legez unibertsitateko kudeaketetan, gobernu mailan presidentzietan, sindikatuen idazkaritza nagusietan e.a. Benetako erabakitze gune mordoak daude, non emakumezkoak ez gauden. Galdetuz gero zergatik ez dagoen emakumerik, sarriegi darabilten argudioak izan ohi dira: andrari ez dagoela, gezurra; edo ez dituztela onartu gura, gezurra; biak faltsuak. Egia da emakumezko gutxiago dagoela, baina, kontu honetan ematen ari dena “kristalezko sabaia” edo “zoru itsaskorra” deritzona da. Kristalezko sabaiak, ikusezina izanik, emakumezkoak erabakitze guneetako maila gorenera heltzeko muga ipintzen dela ikustea zailtzen du, edo zoru itsaskorrak mailaz igozteak eragozten diela. Horrez gainera, gizarteak edo gizakiok ditugun hautaketa mekanismoetan sare informalak asko eta sarri erabiltzen dira; konfiantzazkoentzako lanpostuak ere badirelako. Alegia, sare informaletatik tiratzen dela, asko, hautagai bat edo bestea lehenesterakoan. Orduan, erabakitze postuetako gehiengoak gizonetzkoak badira, aipatutako joeragatik, normala edo, haiek gizonetzkoak aukeratzen jarraitzea. Beraz, ez da bakarrik kontuan hartzen “meritukrazia”; gainera uste dut “meritukrazia” ez dela existitzen, aukera berdintasunik ez dagoelako hasieratik, merituen definitzen dituen aurre-epaitzen ari delako zer den meritugarria. Arreta eman zidalako eta adierazgarria delako, hurrengo pasadizoa aipatuko dut: AEBko orkestra batek partaide barriak aukeratzeko musikariak holtz tolesgarri baten atzean jotzen ipini zituen, musika bakarrik entzuteko. Emaiza: emakumeen presentzia %4tik %40ra pasa zen. Oinarritzkoa da estereotipo, aurreiritziak kentzea, sare informaletatik tiratzeko joera uztea, gardentasun handiagoa bermatzea, bide formaletan andrazkoei aukerak zabaltzea e.a.

—**Oraindik orain badira diskriminazio**

positiboaz kexu direnak.
—Eta egongo dira gerora ere. Neuk argi eta garbi onartzen dut diskriminazio positiboaren alde nagoela. Berdintasunera heltzeko, desberdintasunezko aurre-egoera batetik abiatzen bagara, horri erantzuteko desberdintasun trataera beharrezkoa dela uste dutenetakoa naiz. Halere, ulertzen dut diskriminazio positiboaren onurak, alde onak

“Kristalezko sabaiak emakumezkoak erabakitze-gune maila gorenera heltzeko muga ipintzen dela ikustea zailtzen du”

ulertzea zail egiten zaien jendea egotea. Baina guztiz ziur naiz alderdi politikokoetako kuotarik ez balego, eta ezkerreko alderdiek horiei bide eman ez baliete, gaur egun politikan, parlamentuetan, ez geundekela gauden emakumeen agerpen mailan. Ez da denbora kontua.

—**Berdintasunerako Euskal Planak eta Legeak badu oraindino nondik ibili.**

—2005eko Berdintasunerako Euskal Legeak eta 2007ko Lege Organikoa, biak oso onak dira. Espainiako Genero Indarkeriaren Kontrakto Babes Integralerako neurrien gaineko lege organikoari dagokionez ere iritzi berekoa naiz. Lege onak dira; gauzatze, betearazte arazoa badute ere, eta hori da gizartearen benetako eskakizunak baino askoz ere aurreratuago daudela. Berdintasunaren alde borrokatzen jarraitzeko aterki

“Lege onak dira, baina gauzatze arazoa dute; ez dutelako gehiengoaren babesa, ez dira kontziente horien beharraz”

itzela dira, trataera desberdintasun kasuetan nora jo badugulako, mekanismo araugile hori badagoe-lako. Ostera, arazoa badutela uste dut, gizarte gehiengoaren babesa edo legitimazioa ez dutela, denak ez direla kontziente ezaugarri horietako legeak egotearen beharraz. Horrek ere haien arauzko garapena eta zailtzen du. Horretan egin behar

dugu aurrera: jendea kontziente izan dadin
lege horiek hor daudela benetan beharrez-
koak direlako.

—Hilaren 25a aurrez aurre, beste behin.
Nagore Laffage-en hilketaren epaiketa me-
diatikoa tarteko, beste hamaika isilpean...

—Martxan ipinitako kanpainak bat egiten
du Berdinsareak (euskal udal sarea), bultzatutakoagaz, eta aurtien Barne Sailean sortu

barri den Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak ere parte hartuko du. Ahalik eta indar gehien bildu kanpaina baten atzean, urrunago helduko delako gure mezua. Azken boladan, aurtien ere, kanpainaren lanketa jende gazteari, neska-mutil nerabeei zuzendua eta haien laguntza-gaz egin da. Eurei helarazteko eta ulertarazteko zer diren tratu txarrak, indarkeria eta zer berdintasunean oinarritzen den harremana. Goraipatzekoa da izan duten parte-hartzea: bloga, “Beldur barik” kanta e.a. Kanpainako partaide-protagonista bihurtu dira, hori oso ona da! Erakundeak bigarren mailan lotzea, gazteak kontzientziatzeko bultzada gazteek euren gain hartzea, itzela!

—Gazteak aipatuta, horrez gain, etorkinak izatea da genero indarkeria jasaten duten emakumeen gehiengoaren soslai.

—Hainbat kontu argitu behar da. Alde batetik, egia da emakume etorkinek genero indarkeria modu kezagarrian jasaten dutela. Ordezkatzen duten biztanleriaren kopurua kontuan hartuta gehiago jasaten dute, EAEn etorkinak %10 dira, indarkeria jasaten duten emakumeen herena etorkina da, beraz, zenbatekoa adierazgarria da. Bestalde,

horrek ez du esan gura jatorrizko emakumeek ez dutela indarkeria jasaten; horrek arduratzen nau ni diskurtso horretatik, ezkutatzea edo ahaztea beste heren biak jatorrizkoak direla, eta bertoko gizonezkoen indarkeria jasaten dutela. Etorkinen kasuak hausnarketa patxadatsua eskatzen du, jakiteko zelan hurreratu eurengana, zelan artikulatu eurenganako arreta; batez ere despenalizatzea, arazo handiena egoera irregularrean daudenakaz ei delako, beldur direlako salaketa jartzeak kanporatze prozesua abiaraziko ote duen, ez da horrela, baina ez dakite! Informatzeko, eurengana heltzeko bideak eratu, antolatu behar ditugu, kultura patrialkalagoak oinordetu dituztelako e.a. Badago zer landu.

—Askok antzinako euskal matriarkatuan sinesten du. Zer du sinesmenak egiatik?

—Gogorregia izan daiteke, baina nire ustez matriarkatua antropologiaren mitoa da. Gure gizartea mendebaldeko beste edozein gizarte bezain patriarkala da. Gure kulturak, gizarteek komunean dutena da horietan gizonaren andrazkoarenganako nagusitasuna, menderatzea gauzatzen dela; eta gizon-emakume arteko harremanak arautu dituzten loturak ez direla berdintasunean oinarritutakoak izan; aldeak mantenduz, ezin baitira alderatu euskal emakumea afganistanekoagaz, adibidez. Matriarkatua gehiago lotzen dut baserri giroko gizarte antolakuntza moduagaz. Emakumeak erabakitze eremua izan zezakeen gunen informaletan, baina ez du izan inoiz botere formalak. Matriarkatua egon izan balitz, emakumeek benetan boterea izan balute, ez

ginateke egongo gaur egun, esaterako, baserri guneko emakumeen titulartasun partekatuaren eskaerei aurre egiten, eta titulartasun hori eskubidea dela emakumei jakinarazteko eginbeharraren aurrean.

—**Errenteriako langileakaz izandako tira-bira** (eurekiko Emakunderen gelditasuna kritikatu zuten), konpondu al da?

—Nahigabe handia sentitu genuen, elka-

“Emakume etorkinen aurkako indarkeria kezkagarria da, baina horrek ez du ezkutatu behar jatorrizkoenganakoa”

retaratzea egin baino lehenago ez zelako egon euren egoeraren gaineko jakinarazpenik edo elkarrizketa eskaerarik. Eurekaz batzartu ostean zein jarrera har dezakegun aztertzen gabilta; kontu oso zaila delako. Emakundeko zuzendari naizen aldetik ulertzen dut genero ikuspegitik ezaugarri nabarmena duela, baina oinarrian langatazka da; ezin dugu bitartekari izan, Emakundek ez du eskumenik horretan. Baina, zelan landu jorratzen gabilta, ahaleginduko gara konpontzen laguntzen.

—Andrazkooi ere ahaz dakigukeen arren, gizonezkoek ere badute zer esana eta zer egina bide eta lagun egile legez.

—Asko dute egiteko. Berdintasunaren arazoa, gizartearen arazoa, hori argi daukat. Ez diet errua ez gizonezkoei ezta emakumezkoiei ere egozten. Emakumeok “errua gurea ere badela” kontuagaz gure burua larrutzen ibiltzea, gezurral; edota gizonezkoei errua leporatzea, sozialki eta kulturalki hala ira-

katsitako, eta eurek ikasitako jokabidearen arabera portatzeagatik, bata zein bestea huts galanta dela uste dut. Gure gizartearen, gure kulturaren arazoa da, gizon-ema-kumeok eskutik helduta aurre egin behar-
rekoa. Arazoa zein da: kasu gehienetan, gizonezkoek andrazkoon arazoa dela uste dutela, bereizkeria gehien sufritu izan dugunak garenez, kontra gehien borrokatu

dugunak ere izan garelako... Baina, ez gure arazoa bakarrik, gizartearena baino, eta gizonezko gehiago batzen zaigun heinean hobeto ibiliko gara. “Gizonduz” egitasmoak hori bilatzen du, gizonezkoen partehartzea eta euren ahotsa ere present egotea bultzatzea berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako borrokan.

—Sei hilabete joan dira zuzendaritza onartu zenuenetik...

—Pozik nago; mahai-gainean daukadan lanakaz (adib.: lehenasunezko Berdintasunerako V. plana) gozatzen, erronka profesionalak, pertsonalak eta sozialak ere badi-relako. Hemen nagoen bitartean, erakundeak dituen eskumenei dagokienez, berdintasunaren alde lagun eta lan egin dezakedan heinean, euskal gizartearen, baita kanpoan aintzatespena duen erakunde honetan egoteaz ere poz-pozik nago. Eguneroko erronka pertsonal, profesional eta sozialakaz pozten naiz. ○

 zure **diru-laguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

 **UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kuba / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / uk@aldizkaria.biz / Tf. 94 491 13 37



Biktimak

2007an Liyu+Liubo artista txinatarrek albistegietan azaldutako gertakari bortitzen bilduma berria batu zuten, *Biktimak* izenburupean. Dakarzkiguten antzeztutako argazkiak, herriko eguneroko berriei buruzkoak, 2009ko GETXOPHOTO jaialdian ikusgai egon ziren.

Chutian Metropolis egunkaria 2007.07.14
Arrautza egosiak hozkailu zahar batean zirkuitulaburraren ondorioz

Atzo goizean, Wuhang barrutiko Yangyuanen bizi den Li andreak hozkailuko atea horren bero aurkitu zuen, ezen arrautza ilara barruan egosi zen.

Argazkiak: **Liyu+Liubo**

Chutian Metropolis egunkaria 2007.03.12
Maitasunak eragindako gorrotoa. Pasio-hiltzailea poliziarenera errenditua

Iturri polizialen arabera, Xiao Gan Square kaleko solairu bidun hotel batean, Sun hiltzaileak, 23 urteko gizonak, “Maite zaitut” esaldiaz josi zuen ohe-estalkia; bertan zetzan Shu neskalaguna ito ostean. Adinkideak ziren, eta Shu urtariletik beste gizon batekin ezkondata zegoen Sunek hil arte. Ondoren, poliziarenera errenditu zen.



Chutian goldDen egunkaria 2007.04.17
Elektroshockak zauritutako umearen amak gas bonbona eskuan protesta egin du

Atzoko 16:00 ziren, Chang Qing kaleko atzerritarrentzako eskolan, zelai erdian ama batek gas bonbona eskuan protestari ekin zionean. Ez zegoen ados Zhou semeak 2002an pairatutako elektroshockaren ostean jasotako kalte-ordainarekin. Suhiltzaileak berehalakoan agertu ziren, gunea arriskutik kanpo utziz.



Chutian goldDen egunkaria 2007.05.02
Karaoke-etxe batean hitzorduak eskaintzen dituen neska pozoia edatera behartu dute. Polizia gertaera ikertzen ari da

Herenegun arratsaldean, Shi Pailing kaleko karaoke taberna batean, gizon batek hitzordua eskatu zuen neska batekin; Xiao Li gizonarekin kantatzera joan zen bere kabinara. Gaueko 23:50 ziren, gizonak poltsikotik likido gorri bat zeukan 10ml-dun tutua atera, eta kopa batean isuri zuen edukia. Xiao Liri edateko eskatu zion, honek ezezkoa erantzun, eta gizonak edatera behartu zuen.



Chutian Metropolis egunkaria 2007.07.22
Bihotza hautsita bere burua botatzera zihoan emakumea salbatu
dute armatutako hiru poliziek

Herenegun 21:00ak aldera, Han Yang zubian, 50 metroko altueran, eserita zegoen emakumea bere burua botatzeko prest. Armatutako hiru polizia bertaratu eta emakumea lasaitzen saiatu ziren. Neskari larri begiratzen zioten bitartean, polizietako batek argazki kamera atera eta flashari eragin zion, bere arreata deitu asmoz. Azkenean, erreskatatu eta besotan hartuta leku seguru batera eroan zuten.



Chutian Metropolis egunkaria 2007.12.03
Zabor habia bihurtutako alargunaren etxea

Wang atso alarguna Qingshango planta termoelektrikoko langile erretiratua da, seme-alabengandik urrun bizi da. Hona bizitzera etorri zenetik, 1980an, kaletik zaborra batu eta etxean pilatzen du, bizilagunak aurka izan arren. Auzoko hainbat ordezkariaren limurtzeari esker, alargunak zaborra etxetik ateratzea onartu zuen orain egun batzuk.



Chutian golDen egunkaria 2007.10.11
Errepidera jaurtitako egunkari batek emakume baten heriotza eragin du

Orain egun bi, 15:30 aldera, Hiri Administratiboko Yuehu geltokiko osasun langilea, oso azkar zihoan auto batek harrapatuta hil zen. Hanyangen Qintai etorbideko marra hori bikoitzean zegoen egunkari orria batzen ari zen ezbeharra gertatu zenean; ondorioz Hanyang ospitaleko larrialdietara eroan zuten lehen sorospenetara. Arratsaldeko 19:00ak aldera zendu zen ospitalean, birika eta buruan zituen zauriengatik.



Chutian golDen egunkaria 2007.10.31
10 hileko espetxera zigortu dute gangster bortitza

Urtarrilaren 19an, Zhu eraikitzaileak eta bere lagunek Xiao eraso zuten, ordainketa zorrak zirela eta; Dongxihu barrutian zuten Jing ibai ertzeko etxe batean bahitu eta kolpatu zuten. Bankuko kontuan 10.000 yuan ezartzera behartu zuten. Zhu atxilotu eta 10 hileko espetxe zigorra jaso zuen bahiketa delituagatik.

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alenguetta 8 (Paseo Florida Indaguen 8a)
37 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

Uuribefm
fm 107.8
Goriz irratia

[liburuak]

Durangorako hotsak

Azokaren parean zabalik edukiko ditu ateak
Ahotsenea ekimenak **hiru egunez**

“**Urteotan** Azokara etortzeari utzi dioten zaleak berriro enakarri nahi ditugu, argi, eta era berean beste Aro bat sortu, hitzaren zentzu bietan. Horretan ezinbestekoa da sortzaileon inplikazioa, gu geu baikara gure zaleei beste zerbait eskaini behar diegunak, liburuak eta diskoak sinatzeaz eta gure aurpegiak han edo hemen ikusteaz gainera. Harreman zuzena bultzatu gure genuke, urtean behineko kontu errenditzea, igurtzia eta, zertan ez, aditasuna, guri zer esateko duten ere esan ahal diezaguten. Azoka bera aberastu gura dugu, horren gunea herrina zabalduz, eta erreferentzi puntu edo leku bat mapan –benetakoan eta birtualean- kokatuz”. Helburu horregaz aurkeztu

«Solasaldiak, errezitaldiak, musika emanaldiak, irakurketak e.a.»

zuten *Ahotsenea*, *Sortzaileen gunea* joan den urtean, Durangoko Liburu eta Disko Azokaren albotik. Iaz egun bakarreko jarduna izan zuen, ostera aurtengo “Ahotseneak bere atea eta leihoak” 3 egunez edukiko ditu zabalik, abenduaren 5etik 7ra bitartean (10:00-14:00 eta 16:00-20:00), Landako eraikinaren alboan ipiniko duten karpan. Estreinako ekimenari eutsi eta hura aberastu guran lite-



Informazio gehiago: www.ahotsenea.net

ratur zein musika sortzaileei parte hartze-ko gonbita egin die aurtan ere, eta partaide izan gura duenak (solasaldi, errezitaldi-irakurketa, emanaldi, kantaldi e.a. bitartez) bere proposamena bidaltzeko deia egin dute dagoeneko. “Ekimen independente, profesional, automo eta euskalduna” legez dakusate arduradunek (horien artean Gotzon Barandiaran idazlea) Ahotsenea eta zaleen partehartzea bermatzeko erronkari aurre egin gura diote. Euskal sortzaileen eta zaleen arteko zubi sendoa argizatze bidean dago, beraz. ○

Harremanetarako:
info@ahotsenea.net eta 656 796 209

liburuak



Huntza hezur berritan
Juan Ramon Makuso
Erein

Juan Ramon Makusok poesia arloan idazten duen hirugarren lana da honakoa. Filosofia irakaslea da Makuso eta Argia astekariko kolaboratzailea. Felipe Juaristik idatzi du *Huntza hezur berritan* lanaren hitzaurrea. Gai ezberdinak landu ditu poemetan.



Musika airean
Karmele Jaio
Elkar

Elenaren istorioa aurkezten digu Jaio bigarren eleberr honetan. Seme-alabek Ekuadorreko neska bat ekarri diote etxeko lanetan laguntzeko; baina Elenak etxean egon gura du, leiho ondoan, bere oroitzapenak. Sentimenduak izango dira protagonista.

[kirola]

Bola-jokoan Artean

Artea Bowling Klubak birla-botalari andana batzen du, zaleak zein lehiaketan ihardutenak



Elkarteko kideak. Gomendatzen duten bola-jokoaren gainera gunea: www.losrascadores.com

Orain dela lauzpabost urte sortu zen Artea Bowling kluba, Leioako Artea merkatalgune-ko bolalekuaren aterpean. Klubeko kide Juan Mari Cruzek adierazi duenez 30-40 bazkide-jokalari inguruk osatzen du elkar-tea, “*gehiengoa 20-55 urte bitartekoak; doze-na erdi edo andrazkoak dira. Lehiaketan bada gizonezkoak baino jokalaria hobeak diren andrazkoak, batzuetan alkarren kontra lehiatzen dira, kasu horietan “handicap”-ak eta ematen dira*”.

Cruzek azaldu duenez, “*mugimenduen, pausoen sinkronizazioa beharrezkoa da jaurtiketa egiteko; horretarako, zentzumen danak adi, gorputzaren kokapena... mila xehetasun txiki hartu behar dira kontuan, eta horiek barneratzeko, ikasteko, horietaz jabetzeko behin eta barriro errepikatu behar dira. Gainera, horiek guztiak gureganatzeko eta gainera-koetarako kontzentrazio itzela behar dugu, burutsua izan, eta ezin ahaztu, pista mota bakoitzera egokitzen jakin beharra dagoela, baita pisten baldintza zehatzetara (olio-patroiak, luzera e.a.) ere bai. Bestalde, bola ezberdinak erabiltzen jakin behar dugu (pisutsuak, arinak, errematezkoak e.a.). Horren-*

bestez, bai fisikoki bai mentalki oso konstante-ak izan behar dugu; aipatutako guztia garrantzitsua da baldintza aldatetei arin erantzun behar diegulako”. Hala, beste kiroletan legez bolalekuan batzen dira iluntzean entrenatzeko, eta ikasi edo kirol honetan hasi gura duenak Artea Bowling-en (Leioa) aurki ditzake. Aisialdirako joko legez ezagunagoa izan badaiteke ere, lehiaketak, txapelketak,

«Kontuan hartzeko hamaika xehetasun txiki: pauso, mugimendu, gorputz, buru...»

liga e.a. (banakakoak, bikotekakoak, hiru-koak, talde artekoak) ere badira, zelan ez. Berbarako, “Memorial Luis Seisas” (iraila-urria), eta Espainiako Hiruko Txapelketa (Artea, Leioa; urtarrilak 31), horietan kluba antolatzaile-laguntzaile da. Cruzek argitu duenez kirol “garestia da”, materialaz gainera, txapelketa lekuetarako bidaiak-eta euren sakeletik ordaindu behar izaten dituztelako. Kirolaren sasoi-az galdetuta, Bolo Elkartea-ren zein Federazioaren eta horiekiko klub- en harreman arazoak aipatu ditu, “*ea orain gauzak konpontzen diren*”. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIROL MODA

350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRETE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 81

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETERAKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA
• BITESPA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Mila eta Esther oiloak > *Euskal Oiloa aldizkari*ko zuzendariak

“Gure helburua gizarteak behar zuen zera hori sortzea izan da”

Mila eta Esther ez dira euskal oilo arruntak; izan ere, Euskal Oiloa aldizkariaren sortzaile eta zuzendari dira egun. Uda partean aldizkaria kaleratzeari ekin ziotenetik, oilotegiko ospetsuenak izatera igaro dira. Jada 7. alea kalean da, gainera, harpideduna izateko aukera aurkeztu dute gallinavasca@hotmail.com helbidean.



Mila eta Esther euskal oiloak

—Euskal Oiloa jarri diozue zuen ome-
nez, zertarako aldizkari bat sortu?

—Paperezko aldizkariak interneten era-
ginez krisian dauden une honetan, beha-
rrezkoa ikusi genuen Euskal Oiloa sor-
tzea, kazetaritza serioak behar zuen espa-
rrua hutsik zegoen eta.

Beste prentsa guztia begiratu baino ez
dugu, zenbat umekeria eta manipulazio
dagoen ikusteko, ezin da ia egunkari
bakar bat seriotan hartu, eta hor dago
geure lekua.

Izatez, oilategi baten erdian dagoen
GKE bat ematen dugu.

—Gai politiko eta sozialak lantzen
dituzue ironikoki, ez al dira auzi politi-
koak jada nahiko barregarriak ironizatu
behar izateko?

— Barrien alde serioa erakusten dugu.
Teleberri eta horrelakoetan agertzen
dena 8 urteko ume batek sortu duela
ematen du, batez beste 4 urte duen
audientzia batentzat.

Gaur egungo kazetaritza informatze
lanetan baino, errealitatea sortze lanetan
aritzen da. Beraz, nork ironizatzen du
gehiago? Guk argi daukagu, gero.

—Urriko 6.aleko portada erregeari
eskaini zenioten, erregearekiko mires-

pen berezirik, monarkiazaleak al zarete?

—Ez, ez da horrela. Portadan “Resaca”
ipini genuen, urriaren 12an, Hispanita-
tearen egunean egon zen jai-giroaren
ondorio bezala. Erregearen irudia. Indar
Armatuen desfilean egon zela zen barria.
Zerikusirik ez zuten barri bi ziren.

Ez txarto pentsatu, Juancar tipo jato-
rra da; aurten, krisia dela eta, bere yatea
gutxiago erabili du eta hori kristoren

—Zein gunetan topa dezakegu Euskal
Oiloa Uribe Kostan?

—Edozein kioskotan topatuko duzue,
eta ez badago Arartekoarengana jo,
berak zeure Euskal Oiloa eskuratzeko
eskubidea defendatuko du. Bera ere
demokrata da eta.

—Zentzugabekeria egia bilakatzean,
Euskal Oiloa serioa bilakatuko da,
orduan zer gertatuko da?

**“Gaur egungo kazetaritzak informatu baino,
errealitatea sortze lanetan dihardu”**

detailea da. Demokrata petoa da.

—Nola bururatu zitzaizuen horrelako
aldizkaria sortzea, zein da helburua?

—Gure helburua gizarteak behar zuen
zera hori sortzea izan da. PSE alderdi bat
da, Kukuxumuxu marka bat, eliza kato-
likoa sekta bat eta Euskal Oiloa izateko
modu bat da.

—Euskal Oiloa erosi, gu aberats bilaka-
tu, eta Platonek “haizuloaren mitoa”n
idatzi bezala, benetako argia ikusten
hasiko da jendea.

Hainbestera gai ez bazarete psiko-
logo lapur batengana jo, eta ondo zau-
dela sentituko duzue. o

Abenduak 3

EUSKARAREN
nazioarteko eguna

ospatu gurekin!!!

17:30 TXAN MAGOA
19:15 ERDIZKA LAUETAN

“MOKADUTXOA
eta GEHIAGO

kandelazubieta pabiloian

LEIOA
ZABALDU
EUSKARARI

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua

uk

aldizkariaren
eskutik

ESTREINALDIA

“Erretratuak” erakusketa eta
“Getxo, akordaten naz”
dokumentala azpтитuluakaz

Erakusketa
abenduarien 2ra arte
egongo da
Aldai Patronatuko
hallean

Azaroaren 25ean, 19:30ean
Aldai Patronatuan (Karitate kalea 1)

Luntx goxo-goxoa eskainiko dugu

“Amak lagunduta joaten ginen arreba eta biok egunero ikastolatik irten ondoren”



Itsasoari begira, zelai berde eta ume algaren artera narama haur garaiko memoriak. Orain Algorta turistikoaren zilborrean, igogailu, jolas, ur iturri eta abarrez hornituta... jolasetarako oihan basati gogoratzen dut nik Maria Kristina parkea. Amak lagunduta joaten ginen arreba eta biok egunero ikastolatik irten ondoren, bizikleta hankartean, motorrik liluragarriena bailitzan.

Uda garaian, hegazkin txikiak, Ereaga hondartza gainetik pasatzen ziren iragarki banda luze bat tiratzen zutela, eta Maria Kristinan geunden ume haiek guztiak, txundituta, ahozabalik

begiratzen genion gure gazteluaren bal-koi hartatik. Hegazkinaren zurrunbil-ak, munduko leku askotan ez bezala, alaitasuna zekarren belardi orlegi hartara. Egia esan Maria Kristina, kokaleku-ak ematen dion ikuspegiari esker, Bizkaiko bilakaeraren lekuko mutu izan da urteetan zehar: Burdinez beteriko itsa-sontzien joan-etorria, industriaren dekadentzia, portuaren birmoldaketa, turistez beteriko gurutzontzien etorre-ra.... Eta pelikula horren zati baten ikusle izan gara hainbat arratsalde eguz-kitsutan.

Baina bazen gun e hobengabe hari

“Danontzako lekua dugu Maria Kristina parkea”

mugak jartzen zizkion tokia. “Sherwood” basoaren istorioan bezala, debekatuta zegoen amaren aginduetan Urkijo-basori hasiera ematen zioten zuhaitzetatik harago joatea. Bertan zeu-den arriskuak, handik bat-batean ager-tzen ziren personak, eta bidezidor hasieran zegoen arrokan zizelatutako burezur irudiak, ume batek abenturara-ko behar dituen osagai guztiak biltzen zituen.

Haurrentzako jolas leku, nagusientzako atsedeen toki, Abraren zaindari, egune-roko bizitzaren ikusle.... danontzako lekua dugu Maria Kristina parkea. o

Bar Villamonte

Izan zaitez ugazaba, ez inoren morroi



Iker Hernandez, Ekain Gonzalez de Mendibil eta Xabier Hernandez, Bar Villamonten

Aurtengo udan zabaldu zuten Iker Hernandezek, Ekain Gonzalez de Mendibilek eta Xabier Hernandezek Algortako Villamonten dagoen izen bereko taberna. Eskarmentu handia zeukaten ostalaritzan eta ondo ezagu-tzen zituzten sektore horretako lan bal-dintzak: “Nazkatuta geunden baldintza txarretan eta soldata baxuaren truke behar egiteaz. Ikasi dugu, ahalegin han-dia egin dugu, baina ez dugu duina den ezer aurkitu”. Horrela, hiru algortarrak batu eta euren ugazabak izateko apus-tua egin zuten: “Egoera horretan dau-denei gomendatzen diet euren enpresa sortzea, inoren morroi ez izateko”.

Lekurik ez dago pintxo z jositako barran: “Kafe goxo-goxoa ere badauka-gu!”. Bariku eta zapatuetan bokata beroak egiten dituzte eta parranda giroa

egoten da goizaldeko ordu bata arte. Urtebetetzeak eta ospakizun bereziak egiteko aukera ematen dute, alde z aurretik jakinaraziz gero.

Pozik daude jendearen erantzuna-gaz: “Asteburuetan apurka-apurka giroa sortuz doa”. Aurrera begira, kontzer-tuak, monologoak eta bestelako ekital-diak antolatze ko asmoa daukate: “Hasibarriak gara eta gauzak ondo egite-ko asmoa daukagu”. Bertsozaleek Txapelketa Nagusiko finalerako sarre-rak eskuratu ahal izango dituzte Salsidu kaleko tabernan: “Amaitu arte hemen izango dituzte salgai”. Tabernako oha-rrak eta kartelak euskaraz ipini dituzte: ogitartekoak, anoak e.a. Baldin badaki-gu, zergatik ez erabili? o

Salsidu 20, ALGORTA
Tf. 94 608 94 98



ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Etxakina, Gobeia erakinean sartzen • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25

AREETA



KONTXI



ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaitan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



GOZOLABERA

GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Tellebxe 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

Tf./Fax: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Amiluze z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BORIERRAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISPILU ERREALDOAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g. (Sarrikobasogaz bat)
Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozaki eta prentsa, gubi denik ez pentsa"

Prentsa - Frutu khorak - Aldizkariak - Lizareriak

Ordutia Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
Tf. 94 460 02 88
ALGORTA

Usategi kafetegia



*Usategi parkea z.g.
Algorta*

*Tf. erraztenak: 94 460 64 13

[horoskopoa]



URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Heldu da negua, amaitu dira egun eguzkitsu eta luzeak, orain neguaren gordintasunari aurre egin beharko diozu; beraz gaixotu gura ez baduzu, jantzi bufanda eta eskularruak. Aspaldi amaitu zen kamiseta motza erroteko sasoiak!



AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Nahiz eta denboraz estu ibili alde batetik bestera, ez ahaztu betiko lagunakaz. Beraiek zugaz gogoratzen dira; beraz, denbora eskaini beharko diezu, ez badituzu galdu gura.



GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Azkenaldi honetan, etxekoakaz nahiko aztoratuta zabilrta, lagunakaz daukazun pazientzia bera izan beharko zenuke eurekaz ere. Nahiz eta zugaz astun-astunak izan ikaragarri maite zaituzte eta edozertarako, hortxe daukazazu.



META

(Irailak 17 urriak 16)
Laneko giroak ez dio inspirazioari laguntzen, agian hobe zenuke giroa aldatzea eta beste lan bat topatzea. Haize freskoa behar duzue eta ez eguneroko giro mingotsa.



OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Mendira joateko gogoak daukazu. Bai, denbora larregi daroazu sofak eserita kirolak egin barik. Beraz, ez izan alferria! Jantzi mendiko botak eta zoaz; beno, etxetik ateratzeko gogorik ez baduzu beti geratuko zaizu wii-agaz jolastea!



HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Nahiz eta maiatsun kontuetan zorte ona ez izan hilabete honetan zehar, gabonetako loteria erosi, ziur zorte hobeak izango duzula. Maitasunean gaizki dabilenak zorte ona izaten ei du jokoan.



LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Atzetik daukazu, nahiz eta inolako interesik ez izan, ondo trata ezazu eta ez izan gaiztoa beragaz. Gogoratu, maitasuna sortu ezean, laguntasuna sortzeko aukera dagoela, eta egun lagunak ez daude soberan.



HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Lanaz lepo zabilrta, baina lasai gero eta gutxiago geratzen da Gabonetako oporrak heltzeko. Oporrak diren arren, ez ahaztu erosketak egin behar dituzula.



ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Maitemintzen hasia zara? Ez lotsatu. Goizean, arrastian eta gauean ere beragaz pentsatzen duzu. Hala ere, ez bazara inoiz ausartzen ez duzu jakingo berak zer pentsatzen duen. Animo!



EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Lagunakaz egiteko buruan daukazun bidaiaeren txartela agortu baino lehen zeurea eskuratu, txartelik barik lotzeko arriskua daukazu eta horrela izanez gero, herria zaintzen lotu beharko zara.



IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Hilabete honetan lan handia egin duzu, egia da saria merezi duzula. Bidaiaitxoa egiteko asteburua aukeratu, joango zaren lekua eta bidaiairako laguna; izan ere, besterik ez duzu behar, erlaxatu eta ondo pasa!



NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Azkenaldi honetan inoiz baino argiago zabilrta. Ideia onak dituzu lanean eta lagunakaz ere giro ederra sortzen duzu, poztasun horregaz hartu beharko duzu datorkizun urte barria.



Koskakideak behar ditugu
irratia aurrera jarrai dezan!!

Izena..... Deiturak..... Herria.....
E-mail..... Telefonoa.....

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

**12€ urtean
€1 hilean !!**

**Bidali zure datuak
posta elektroniko edo
posta arrunt bidez**

KOSKA
irratia 108 FM

koskairratia@koskairratia.com
k/ Amesti 6 4.pisua 2. dep.
Algorta (Bizkaia)
www.koskairratia.com

HITZ GURUTZATUAK

12345678910

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

Ezker eskuma

1. Airea baino arinagoa den gas baten bidez airean mantentzen den tresna. 2. Estrontzioaren ikur kimikoa. Ipar Euskal Herrian, jela, izotz, horma. 3. Behiaren arbaso. Batez ere irinez, gurinez edo azukrez osatutako orez eginiko gozoki handiak. 4. Marinelen zerrenda. Animaliak ikusgai egoten diren barruti itxi. Bigarren bokala. 5. Gipuzkoako herri batekoak. Gramoaren laburdura. 6. Sodioaren ikur kimikoa. Kontsonante ez direnak. 7. Tonaren laburdura. Amerikako Estatu Batuen laburdura. Kisu. 8. Indar handiz biratzen den haizeak eragindako ekaitz. Galdetzaile bat. 9. Bizkaiko Udalerria, Arratian. Otx!, atx!. 10. Algaraka, karkailaz.

Goitik behera

1. Nork bere burua edo bere ondatsunak, galera, istripu eta abarretatik babesteko, egiten dituen hitzarmenak, aseguruak. 2. Belearn antzeko hegaztia. Bizkaieraz, iratzea, garoa. 3. Röntgen. Burdinola. Ahuntzaren ar. 4. ... egin, goitik ari. Pluralean, harri mota. 5. Sagu, hitz elkartzetan. Automata. 6. Trebetasunak, antzeak. Ipar Euskal Herrian, izu. 7. Harriak. Aluminioaren ikur kimikoa. 8. Haur hizketan, zakur. Behar, egiteko. Bokala. 9. Hortzei eusten dien haragia. Pl., landare mota, iratzeak. 10. Krudelkeria.

Soluzioa

A	K	A	T	I	A	K	R	A	K
I	A		A	Z	T	A	E	R	A
R	O	N		I	O	T	K	I	Z
E	R	A	K		B	E	V		T
K	A	T	A	K	O	B	A	V	N
R	G		K	A	R	V	I	V	
E		O	O	Z	A	T	O	R	
K	A	T	R	V	T		O	R	N
N	I	O	R	A	K		R	S	
A	O	T	A	T	S	O	R	E	A

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Getxoko zein txoko aukeratu du Irkus Ansotegik ale honetako *Nire bazter kuttuna* atalerako?

> Aurrekoaren erantzuna: Azken egunak Gandiagarekin
> Irabazlea: **Nekane Orue***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

**Gargia**

astekariaren hiru bilabeteko harpidetza doan



Zein herritako plaza ikus daiteke 28. orriko argazkian?

- **Abadiño**
- **Plentzia**
- **Lekeitio**

> Aurrekoaren erantzuna: Gandorra
> Irabazlea: **Hikma Orue***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

**Gargia**

jolasak eta jokuak





TRABUDU DANTZA TALDEAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

SAN LORENZO DANTZA TALDEA, 1944

Astrabuduko gaurko (eta 1976tik aurrera) dantza taldea "Trabudu" da, baina lehenago ere izan dira beste batzuk; haietako bat argazkikoa duzu, 1944an sortua, Patxi Aresti txistulariaren eskutik. Dantzaririk gehienak senitartekoak ziren, eta "Kintone" baserriaren (egun desagertua) ondoko eraikina, beheko solairua (lehenago baldosak egiten ziren bertan) entseguetarako erabiltzen zuten. Euren bandera zuria zen, San Lorentzoren parrila ezaugarritzat zuena. Ekitaldi gutxi izaten zituzten, baina urtero, gutxienez, auzoko jaietan dantzatzen zuten: San Lorentzo egunean, abuztuaren 10ean eta San Agustinen, abuztuaren 28an. ○

Izenak: Felix Garcia, Tomas Ballestero, Boni Aurrekoetxea, Jesus Aurrekoetxea, Marcos Azkue (GB), Ramon Aresti (txistularia) (GB), Felix Azkue (GB), Jose Luis Pereira (GB), Ramon Menchaca, Javier Garcia (GB).

JON ALLENDE > abeslaria

“Gustatzen zaidana egiten bizitzea da nire ametsa”

Testua: **Nerea Guijarrubia**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Geldi-ezina.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Pasiozko legendan pelikulan Tristan izatea gura nuke. Izan ere, errebeldea eta abenturazalea da.

Zer izan nahi zenuen txikitan?
Abeslaria!

Aitor dezakezun bizio bat.
Txokolatea, emakumeak...

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?
Ez dut izan aukerarik bidaiaz gozatzeko, beti lan-bidaiak izan dira eta beraz, ez dut bidaietan disfrutatzeko betarik izan.

Gehien gorroto duzun topikoa? Zergatik?
Ez dago gorroto dudarik topikorik, gutxiago gustatzen zaizkidanak badira, baina gorroto dudarik ez.

Abesti edo musika talde gustukoena?
Nire talderik gogokoena “Queen” taldea da, abestia aldiz Gerard Joling artistaren “No mas boleros” kantua.

Zure ametsetako bat?
Bizi osoan zehar gustatzen zaidan horretan aritzea, abeslaria izatea nire lanbidea izatea beti.

Zer hutsegite ez duzu barkatzen?
Jendearen faltsukeria. Ezin dut onartu jendea faltsua izatea eta sentitzen ez duen hori egitea, horrek gainditzen nau.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?
Denak! Hemen hoberena daukagu eta. ○

LABURREAN— Txikitatik abeslaria izateagaz amesten zuen, eta hainbat saiakera egin ostean, aurten, bere ametsa egia bihurtu da, “Operacion Triunfo” izeneko programari esker. Nahiz eta epaileek etengabe nominatu, Barakaldo-koak gogor eutsi zion eta ikusleen babesagaz batera, aurrera egin zuen finalera heldu arte. Hirugarren postua eskuratu zuen 24 urteko bizkaitarrak. Garaipenaren atarian geratu bazen ere, publikoaren kuttunetakoa izatera heldu zen, eta ez da gutxi. Baina, “Operacion Triunfo” ez da izan Allenderen lehen esperientzia; izan ere, “La batalla de los coros” izeneko telesailan parte hartu eta irabazi egin zuen Mikel Erentxunen taldean.

Jose Antonio Aspiazu > Rallye garapena eta frankizia

“Barne komunikazioa ikaragarri hobetu dugu eta horrek beharra erraztu digu”

Euskal Autonomia Erkidegoko 267 establezimenduk lortu du dagoeneko kalitate turistikoaren Q egiaztagiria. 30 urte joan dira Jose Antonio Aspiazuk Rallye martxan jarri zuenetik; oilaskoak, patatak, entsalada eta horientzako osagarriak eskaintzen dituzte. 1999tik Getxoko Kirol Portuan dago. 2005ean lortu zuten Q egiaztagiria.

—Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria eskuratzea lortu zenuten 1999an. Zergatik erabaki zenuten horrelako sistema bat martxan jartzea?

—Etengabeko hobekuntza sistema jarraitzen saiatu gara hasieratik; Q ziurtagiria hori bermatzeko erreminta egokia zela iruditu zitzaigun eta horregatik animatu ginen prozesuagaz hasten; produktuan, zein zerbitzuan hobekuntzak gura genituen.

—Kalitate sistema egiaztatua edukitzeak, zer nolako abantailak ekarri dizkio zure negozioari?

—Gure kasuan, barne komunikazioa ikaragarri erraztu digu. Txanda ezberdinetan egiten dugu behar eta, horregatik, prozesuak sistematizatzea zaila egiten zitzaigun. Langile batek, jai izan badu astelehenean eta martitzenean, eguaztenean beharrera heltzen denean, zer egin jakin behar du. Prozesuak sistematizatzean, hori erraz lortzen dugu; denek dakite eskaria zein den eta zeintzuk produktu heldu diren. Bestalde, langileen kontzientziazioan eragina izan du; gogo handiagoa jartzen dute euren egitekoan, prozesuaren sistematizazioak beharra errazten baitie. —Hobekuntza horiek azkenean bezeroak non igartzen ditu?

—Bezeroarentzat bermea suposatzen du.

Badaki errotazio egokia izan duen produktua jasoko duela. Guk produktu galkorrakaz behar egiten dugu; prozedurak sistematizatu ditugunez, bezeroak badaki produktu hori ez dela egoera txarrean egongo. Zerbitzuaren kalitatean ere hobekuntzak nabaritu ditu bezeroak.

—Zuen sektorean behar egiten duten gainontzeko enpresari eta eragileei kalitate-sistema egiaztatua abian jartzea gomendatuko zenieke? Zergatik?

—Bai, dagoeneko egin dugu. Guk 2005ean lortu genuen Q ziurtagiria eta Kirol Portuan gure ondoan dauden Mc Donaldseko lagunek aurten lortu dute. Guregana hurreratu ziren, hobekuntzak nabaritu genituen gal-

“Bezeroarentzat bermea suposatzen du; errotazio egokia izan duen produktua jasoko du beti eta ez du egoera txarrean dagoen ezer jango”

detzen eta guk baietz esan genien. Ez dira prozedura zailak eta lortutako emaitzak pozgarriak dira. Bezeroen aurrean kontzientzia lasaiago daukagu orain.

—Turismo Q ziurtagiri prozesuak enpresaren posizionamendua hobetzen laguntzen duela uste duzu?

—Bezeroek gero eta gehiago dakite Q ziurtagiriak lortzeko prozesuei buruz. Edozein bezerok ahalik eta produktu onena jaso gura du; Q ziurtagiria duen enpresa baten eta ez duen beste baten artean aukeratu behar badu, kalitate bermea ematen diona aukeratu du. Horrek balio erantsia ematen digula uste dugu. ○



Jose Antonio Aspiazu, Rallyen

Eusko Jaularitzak, Basquetour, Turismoko euskal agentziagaz batera, enpresarien esku jartzen ditu beharrezko diren baliabide eta laguntzak bere erakundeak lehiakorragoak izateko:

- Jardun Onen Programa: Honen helburua enpresarien “profesionalizazioa” hobetzea da eta norakoaren kontzientzia sortzea. Euskadin 267 establezimenduk lortu du dagoeneko kalitate turistikoagaz konpromisoaren egiaztagiria.

- Q Kalitate Turistikoaren Programa: Bezeroen gogobetetzea bermatzen duen programa. Euskadin 267 establezimenduk lortu du dagoeneko Kalitate turistikoaren Q egiaztagiria.

- EFQM Bikaintasun Ereduaren Programa: Progama honek erakundeei proposatzen die kalitateagaz bikaintasun maila igotzea. Euskadin 17 establezimenduk parte hartzen du honetan.

Jar ezazu kalitate turistikoaren Q ziurtagiria zure establezimenduan!


**94 607 75 86
94 404 74 70**

**www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net**



GETXOarte^{'09}

ARTE SORTU BERRIEN ARETOA | SALÓN DE LAS ARTES EMERGENTES



Imatge: Fundació Jaume Gual, 2009. Fotografia: J. Gual